



BERDINTASUNERAKO 2/2015 FORU ARAUAREN JARRAIPEN TXOSTENA, 2018





AURKIBIDEA	Orrialdea
1.- AURKEZPENA	5
2.- I. TITULUA: GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ESKUMENAK, FUNTZIOAK, ANTOLAKETA ETA FINANTZAKETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO	8
2.1.- Garatzeko epe jakin bat duten itemak.	
2.2.- <i>Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoaren</i> helburuak eta funtzioak.	
2.3.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako <i>departamentu-unitateen</i> funtzioak.	
2.4.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako koordinazio eta gizarte-solaskidetzako egiturak.	
2.5.- Egindako lanerako hurbilketa kuantitatiboa.	
2.6.- 2018an landutako jarduketarik esanguratsuenak eta titulu honetako itemei dagokienez geratzen diren erronkak.	
3.- II. TITULUA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO BERARIAZKO POLITIKAK	20
3.1.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako tokiko politika publikoen sustapena.	
3.2.- Sare eta jardunbide feministen babesa.	
3.3.- Sentsibilizazio sozialerako, ezagutzarako eta praktikarako neurrien garapena.	
3.4.- Indarkeria matxistaren aurkako foru-politikaren diseinua, koordinazioa eta garapena.	
3.5.- Egindako lanerako hurbilketa kuantitatiboa.	
3.6.- 2018an landutako jarduketarik esanguratsuenak eta titulu honetako itemei dagokienez geratzen diren erronkak.	
4.- III. TITULUA: GENERO-IKUSPEGIA GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN JARDUERETAN ETA GIPIZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU-SEKTORE PUBLIKOKO ENTITATEEN JARDUERETAN INTEGRATZEKO NEURRIAK	34
4.1.- <i>Berdintasunerako Foru Planaren</i> plangintza, jarraipena eta ebaluazioa departamentuetan.	
4.2.- Ordezkaritza eta parte-hartze orekatua Foru Aldundiko esparru eta maila guztietako lantaldeetan.	



4.3.- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko informazioaren produkzio eta kudeaketa eta barne- zein kanpo-komunikazioa.

4.4.- Genero-ikuspegia txertatuko duten foru-azterlanak eta foru-estatistikak lantzea.

4.5.- Kontratazio publikoan berdintasun-klausulak txertatzea.

4.6.- Diru-laguntzetan berdintasun-klausulak txertatzea.

4.7.- Arau-garapena: generoak foru-arauen aurreproiektuetan, izaera orokorreko xedapenen proiektuetan eta izaera sektorialeko foru-plan estrategikoetan duen eraginari buruzko alde aurreko ebaluazio-txostena.

4.8.- Aurrekontuen plangintza eta kudeaketa: genero-eragina berrikusi, aztertu eta ebaluatzea, urteko onarpenaren aurretik eta ekitaldia amaitu ondoren.

4.9.- Langileen kudeaketa: sarbidea eta hautaketa, sustapena, prestakuntza, ordainsariak, laneko segurtasuna eta osasuna, erantzunkidetasuna eta bateragarritasuna.

4.10.- Egindako lanerako hurbilketa kuantitatiboa.

4.11.- 2018an landutako jarduketarik esanguratsuenak eta titulu honetako itemei dagokienez geratzen diren erronkak.

5.- IV. TITULUA: BERDINTASUNAREN SUSTAPENA FORU ESKU-HARTZE ESPARRUETAN **51**

5.1.- Eremu orokorra: Gobernantza ona, emakumeen ahalduntzea

5.2.- *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana*

5.3.- *Aurre! Foru Plana*

5.4.- Egindako lanerako hurbilketa kuantitatiboa.

5.5.- 2018an landutako jarduketarik esanguratsuenak eta titulu honetako itemei dagokienez geratzen diren erronkak.

6.-. XEDAPEN GEHIGARRIAK **61**

6.1.- Lehenengo Xedapen Gehigarria: Gipuzkoako Foru Aldundiaren egiturak egokitzea.

6.2.- Bigarren Xedapen Gehigarria: Finantzaketa.

6.3.- Hirugarren Xedapen Gehigarria: Foru Arauaren jarraipena eta ebaluazioa.

6.4.- 2018an landutako jarduketarik esanguratsuenak eta xedapen gehigarriei dagokienez geratzen diren erronkak.

7.-. ONDORIOAK **65**

7.1.- 2018an landutako jarduketarik esanguratsuenak.

7.2.- Geratzen diren erronkak.



1.- AURKEZPENA

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Arauak, bere **Hirugarren Xedapen Gehigarrian** ("**Foru Arauaren jarraipena eta ebaluazioa**"), bere jarraipena egiteko modua jasotzen du. Bertan, Foru Arauaren betetze, garapen eta aplikazioaren jarraipena egiteko lau puntu daude ezarrita:

- Foru Araua indarrean jarri eta sei hilabeteko epean gehienez, *Jarraipen eta Ebaluazio Batzordea* sortzea onartuko da.
- Urtero, foru-arau honetan xedatutako neurrien jarraipenari eta egikaritze-mailari buruzko txostena osatuko du *Jarraipen eta Ebaluazio Batzordeak*, eta neurriak proposatuko ditu, foru-arauak erabateko eraginkortasuna izan dezan. Txosten hori Gipuzkoako Foru Aldundiko webgunean argitaratuko da.
- Bost urtez behin, *Jarraipen eta Ebaluazio Batzordeak* foru-arauari buruzko ebaluazio-txosten bat osatuko du, eta Gipuzkoako Batzar Nagusietara bidaliko du.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak beharrezko baliabide ekonomikoak ezarriko ditu foru-arauaren ebaluazioa egiteko, material aditua den pertsonaleko parte-hartzea bermatuz.

Dokumentu hau **2018ko jarraipenari eta egikaritze-mailari buruzko urteko txostena** da, hau da, Foru Arauaren Hirugarren Xedapen Gehigarriaren bigarren puntuan adierazitako txostena.

2018ko jarraipena egiteko, departamentuen arteko koordinazio-egituretan inplikaturako foru-departamentuetako pertsonak eta *Berdintasunerako Organoak* emandako datu kuantitatiboak eta kualitatiboak bildu eta aztertu dira. Pertsona horiei esker, honako datu-iturri hauek bildu eta aztertu ahal izan dira:

- Foru-departamentuen *Berdintasunerako Plangintza (2017-18-19)*
- Foru-departamentuen *Berdintasunerako Urteko Programazioaren 2018ko Jarraipen Txostena*.
- *Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Aurre! Foru Planaren 2018ko Jarraipen Txostena*
- *Gipuzkoako Kontzilio Erantzunkiderako Foru Planaren 2018ko Jarraipen Txostena*.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak egiten duen *Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren* erakunde arteko jarraipena egiteko 2018ko foru-datuak.

2/2015 Foru Araua onartu zenetik landu den hirugarren jarraipen-txostena da hau, eta **aurreko bi jarraipen-txostenen** (2015-2016. urteetako txostenaren eta 2017. urtekoaren) **egiturari eta orduan erabilitako metodologiari eta aztertutako itemei eutsi zaie**, haien arteko konparazioa egin ahal izan dadin eta guztiak adierazitako foru-arauaren guztizko garapen metatuaren ikuspegi orokorrago eta osatuago batean txertatu ahal izan daitezten.

Horretarako, **jarraipen-txosten honen atalak** bat datoz arauan bertan bildutako kapituluekin. Horrela, beraz, jarraipeneko item eta puntu zehatzak ikuspegi zabalago baten testuinguruan koka



daitezke. Hortaz, lehen atal hau (“AURKEZPENA”) eta azken atala (“ONDORIOAK”) salbuetsita, txosten honen gainerako bost atalak bat datoz Foru Arauaren atalekin.

- Bigarren atalean (“Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenak, funtzioak, antolaketa eta finantzaketa emakumeen eta gizonen berdintasunerako”), Foru Arauaren izen bereko I. TITULUAREN jarraipena egiten da.
- Hirugarren atalean (“Emakumeen eta gizonen berdintasunerako berariazko politikak”), Foru Arauaren izen bereko II. TITULUAREN jarraipena egiten da.
- Laugarren atalean (“Genero-ikuspegia Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardueretan eta Gipuzkoako lurralde historikoko foru-sektore publikoko entitateen jardueretan integratzeko neurriak”), Foru Arauaren izen bereko III. TITULUAREN jarraipena egiten da.
- Bosgarren atalean (“Berdintasunaren sustapena foru esku-hartze esparruetan”), Foru Arauaren izen bereko IV. TITULUAREN jarraipena egiten da.
- Seigarren atalean (“Xedapen gehigarriak”), Foru Arauaren lau XEDAPEN GEHIGARRIEN jarraipena egiten da.

Adierazitako ataletan ikusiko dugunez, **jarraipena osagai deskribatzaileekin (azalpenezkoekin) eta baloraziozkoekin egin da**, eta eskema berari jarraitzen dio Foru Arauaren titulu guztietan:

- Garatzeko epe jakin bat ezarrita duten itemen jarraipen deskribatzailea; 2018an landu diren ala ez jasotzen da.
- Garatzeko epe jakinik gabe jasotzen diren gainerako itemen jarraipen deskribatzailea; itemen garapen-egoera baloratzen da. Hau da, 2018an landu diren ala ez.
- Hurbilketa kuantitatiboa, 2018an tituluaren kapitulu bakoitzean landutako itemek item guztiak (funtzioak, ekintzak, koordinazio-egiturak eta abar) kontuan hartuta duten ehunekoa zenbatestearen bidez.
- Foru Arauaren titulu bakoitzeko itemen inguruan egindako jarduketarik esanguratsuenen eta oraindik geratzen diren erronken identifikazioa.

Azkenik, kontuan hartu behar dira **jarraipen-txosten honetan erabilitako terminologiari** buruzko alderdi batzuk:

Berdintasunerako Foru Arauak oso item zabalak eta konplexuak jasotzen dituen gero, itemak lantzen hasi ez diren kasuetan izan ezik, oso zaila da haien “garapen-maila” finkatzea. Hortaz, “2018an item bat garatu dela” esaten denean, landu dela eta, beraz, garatzen ari dela eta horretan dihardutela ulertu behar da.

Ildo horretan, item jakin batek “garapen esanguratsua” edo “garapen handia” duela esaten denean, zabaltasun, baldintza, baliabide eta garapen esanguratsuekin lantzen ari dela ulertu behar da. Horrela gertatu ez den kasuetan, “hasiera batean garatzen ari da”, “lantzen hasi da” eta antzekoak erabiltzen dira. Azkenik, aurreko urteetan hasitako garapenarekin aldaketa esanguratsurik gabe jarraitu den kasuetarako, “2018an garapenak bere horretan jarraitu duela” adierazten da.

Item bat edozein garapen-mailatan lantzea Foru Araua garatzeko gauza positibotzat hartuta, txosten honetan, alde batetik, kapitulu bakoitzeko itemak nola landu edo garatu diren deskribatzen da, eta, bestetik, 2018an kapitulu bakoitzean landutako itemak kontabilizatzen dira, kapitulu horretan egin den urteko lanaren zenbatespen kuantitatiboa egiteko.



Kapitulu bakoitzeko itemen portzentajezko garapenaren **zenbatespen kuantitatiboak** interpretazio orokor orientagarri bat egiteko baliabide metodologikoak dira. Zenbatespen horiek bi faktore kontuan hartuta ulertu, erlatibizatu eta ñabartu behar dira. Alde batetik, item bakoitzaren garapenaren askotariko esanahiari eta balioari buruz adierazitakoa (hasierako garapena edo garapen handia). Eta, bestetik, item bakoitzak Gipuzkoako emakumeen eta gizonen berdintasunean izan dezakeen eduki, zabaltasun, konplexutasun eta eragin desberdina.

Zenbatespen kuantitatibo horiek Foru Arauaren –oro har– eta haren tituluaren –bereziki– betetze-mailaren gutxi gorabeherako irudi bat lortzeko balio dute funtsean. Baliagarriak izan daitezke, halaber, Foru Arauak aplikatu den urte guztietan izan duen garapenaren joera ezagutzeko.

Zenbatespen kuantitatibo horien ehunekoa Foru Arauak kapitulu bakoitzean jasotako itemen guztizko kopuruan oinarrituta kalkulatu da. Hau da, 2018an landutako funtzioek Foru Arauak kapitulu horretarako jasotzen dituen funtzio guztietan duten ehunekoa dira, funtzio horien garapena osatu den edo etorkizunean garatzen jarraitu behar diren kontuan hartu gabe.

Azkenik, titulu bakoitzean, 2018ko jarraipenaren hurbilketa kuantitatiboa ez ezik, 2017ko hurbilketa, 2015-2016koa (garapenak aldi osoan izandako joera ikusi ahal izateko) eta Foru Araua 2015ean onartu zenetik 2018ko abenduaren 31ra arte metatutako garapenaren zenbatespena ere biltzen dira.

Txosten honetan, Foru Arauaren titulu bakoitzaren jarraipenaren barruan, **jarduerarik esanguratsuenak eta geratzen diren erronkak** laburbiltzen dituen azken atal bat dago jasota. Logikoa denez, laburbildutako alderdiei buruzko informazio gehiago aurki daiteke titulu bakoitzaren laburpenaren aurreko orrialdeetan.

Txostena amaitzeko, ondorioei buruzko azken atal bat dago, eta, bertan, aurreko titulu eta atal guztietako ekintza esanguratsuen eta geratzen diren erronken laburpenak biltzen dira. Azken sintesi horren inguruko informazio zabalagoa Foru Arauaren titulu bakoitzerako egindako jarraipen deskribatzailean kontsulta daiteke.



2.- I. TITULUA: GIPIIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ESKUMENAK, FUNTZIOAK, ANTOLAKETA ETA FINANTZAKETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO

2.1.- GARATZEKO EPE JAKIN BAT DUTEN ITEMAK.

Foru Arauaren titulu bakoitzaren jarraipena alderdi horiekin hasiko da, eta Foru Arauan hori lantzeko epe jakin bat ezartzeak alderdi horien berariazko lehentasuna ezartzen duela ulertu behar da. Epe gehienak hiru urtekoak direla eta 2018an bete direla kontuan hartuta, horregatik ere bidezkoa da alderdi horien jarraipenarekin hastea.

2.1.1.- Foru Arauak hiru urrats eta epe jakin batzuk ezartzen ditu *Berdintasunerako Organoak* esleitutako funtzio guztiak betetzeko behar dituen baliabideak garatzeko:

2015-2016ko eta 2017ko jarraipenetan jaso zenez, lehen urratsa *Berdintasunerako Organoaren langile-premiei buruzko txosten tekniko* bat egitea zen, organo horrek bere funtzioak bete ahal izan zitzaizkien. Txosten hori, maila teknikoan, Foru Arauak ezarritako sei hilabeteko epean egin zen, eta balidatzea eta funtzio publikora bideratzea geratzen da oraindik.

Bigarren urrats gisa, Foru Arauak urtebeteko epea ezarri zuen (2016-03-17), aurreko urratsean aipatutako txostena kontuan hartuta, *lanpostuen zerrendan* beharrezkoa zen aldaketa egiteko, baina orain arte (2018-12-31) ezin izan da egin.

Azkenik, Foru Arauak, atal honen hirugarren eta azken urrats gisa, aurreko urratsean sortutako *lanpostu berriak* araua onartu eta hiru urteko gehieneko epean bete behar dela ezartzen du, baina orain arte (2018-12-31) ezin izan da egin.

Bestalde, 2/2015 Foru Arauaren 16. artikulua, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen* 17. artikuluari jarraikiz, berdintasun-arloko foru-teknikarien gaikuntza espezifiko azpimarratzen du. Berariazko prestakuntza-betekizun horiek *Berdintasunerako Organoko* postu teknikoetan txertatuta daude dagoeneko, *berdintasunerako zerbitzuko buruaren* postuan izan ezik.

Laburbilduz, alderdi horiek ez dira berriz landu edo garatu 2018an.

2.1.2.- Foru Arauak hiru urrats eta epe jakin batzuk ezartzen ditu *berdintasunerako departamentu-unitateak* eratzeko:

2015-2016ko eta 2017ko jarraipenetan jaso zenez, lehen urratsa Foru Arauak finkatutako epean egin zen (2015-09-17): *foru-departamentuek plantilla-premiei buruzko azterketa* egitea, berdintasunerako *departamentu-unitateak* sortzeko. Departamentu batzuek txosten espezifiko bat egin zuten, eta beste batzuek, berriz, departamentuaren premien aurreikuspen orokor bat. Nolanahi ere, departamentu guztien premiei buruzko azterketa egitea eta funtzio publikora bideratzea geratzen da oraindik.

Bigarren urratsaren barruan, Foru Araua onartu eta urtebeteko gehieneko epea ezartzen zen *lanpostuen zerrendan lanpostuak aldatu edo sortzeko*. Eta hirugarren eta azken urratsa (sortutako *lanpostu berriak betetzea*) egiteko, hiru urteko gehieneko epea zegoen, Foru Araua onartu zenetik



aurrera zenbatzen hasita. 2018. urtean, adierazitako unitateak funtzionatzen hasi diren bi departamentuetarako bidezko aldaketak egin dira, eta 2019an hirugarren departamentu batean egin ahal izateko kudeaketak aurreratu dira.

Hasiera batean, 2015-2016ko jarraipenean jaso bezala, 2/2015 Foru Arauan jasotako *departamentu-unitateen* funtzioak orduan zeuden eta 68/2008 Foru Dekretuan oinarrituta eratuta eta abian zeuden “departamentu barruko unitateei” esleitzea erabaki bazen ere, 2018. urtean 2/2015 Foru Arauan jasotako *departamentu-unitateak* abian jartzeko prozesua hasi da. 2018ko uztailaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jasotako lanpostuen zerrendaren aldaketan, Gobernantza Departamentuaren berdintasunerako departamentu-unitatea eta Ogasun eta Finantza Departamentuko berdintasunerako departamentu-unitatea eratzeko beharrezkoak diren aldaketak jasota daude.

Horren ondorioz, 2018. urtean bi departamentu horiek beren berdintasunerako departamentu-unitateak izan dituzte, lanaldi-erdiko dedikazioarekin, Foru Arauan haiei esleitutako funtzioak betetzeko. Bestalde, 2019an beharrezkoa den berariazko prestakuntza (berdintasunerako egiturek beren funtzioak betetzeko 4/2005 Legean jasotakoa) egiteko aukera kontuan hartu behar da. *Gizarte Politiketako Departamentuak*, halaber, bere berdintasunerako departamentu-unitatearen administrazio-eraketarako prozesua hasi du 2018an, eta 2019an abian jartzea dago aurreikusita.

2.2.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ORGANOAREN HELBURUAK ETA FUNTZIOAK.

2.2.1.- 2015., 2016. eta 2017. urteetan era zabal eta egokian garatu ziren eta 2018an garapen esanguratsua izan duten helburuak eta funtzioak honako hauek dira:

Berdintasunerako foru-politikak bultzatu eta koordinatzea, eta haien jarraipena eta ebaluazioa egitea.

Udal-mailan sustapen-neurriak ezartzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak garatzeko baldintza egokiak sortzeko.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan sare eta jardunbide feministak indartzeko baldintza egokien sorkuntzarako babesa bermatzea.

Gizarte-politikaren arloko funtzioak eta eskumenak esleituta dituen Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuarekiko koordinazioa bultzatzea indarkeria matxistaren aurkako foru-politikaren diseinu, jarraipen eta ebaluazioan.

Herritarrak genero-desberdintasunen inguruan eta berdintasunaren alde sentsibilizatzea.

Euskadiko gainerako administrazio publikoekiko solaskidetzari eta koordinazioari eustea berdintasunaren arloan.

Berdintasunaren arloko programazio edo plangintzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren esparruko jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoen diseinua zuzentzea.

Aldundiaren araudiaren eta plan estrategikoen genero-eraginaren alde aurreko ebaluazioaren organo egiaztatzaile gisa jardutea eta aginduzko txostenak egitea.

Foru-egituretarako berdintasun-arloko berariazko prestakuntza-programak diseinatzea.

- Ildo horretan, *Berdintasunerako Departamentu Unitateetarako* berariazko prestakuntza-plana eta Gipuzkoako Foru Aldundiko langileei berdintasun-arloko prestakuntza-ibilbide



osatu bat eskainiko dien urte anitzeko prestakuntzako esparru-plana (JAKITUN programaren barruan) azpimarratu behar dira.

Gipuzkoako udalerrietako teknikarien sareko lana sortu eta sendotzea, udalaz gaindiko beste lan-sare batzuetan egindako lanari jarraikiz.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako mugimendu feministaren eta emakumeen elkarte-mugimenduaren arteko solaskidetza politikoko guneak sortu eta bultzatzea, eta mugimendu horren barruan egiten den lana sendotzeko beharrezkoak diren baldintzak sortzea.

- Ildo horretan, azpimarratu beharra dago 2018an GUNEAREN egiturari eta funtzionamenduari buruzko gogoeta egiteko prozesua (2017an hasitako eztabaida-prozesua, alegia) amaitu zela.

Berdintasunaren aldeko emakumeen asoziazionismoa sendotzeko sustapen-neurriak ezartzea eta emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoaren sustatzea.

Gipuzkoako herritarrak lurraldeko emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoeraren eta berdintasuna sustatzeko beharrezkoak diren neurrien inguruan sentsibilizatzea, diskriminazio anizkoitzeko egoerak kontuan hartuta.

- Ildo horretan, bereziki esanguratsua eta azpimarragarria izan da aurreikusitakoaren arabera 2019. urtearen hasieran egingo den "Feminismoa 4.0: feminismoaren olatu berriaren irakurketa sozialak eta politikoak" Nazioarteko Kongresuaren prestaketa.

Beren helburu edo funtzioei dagokienez lurraldearen barruan zein kanpoan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen lagunduko duten erakunde publiko eta pribatuekiko lankidetzak eta parte-hartzerako harremanak eta bideak ezartzea.

Berdintasunaren arloan lurraldean, Autonomia Erkidegoan, Estatuan, Europako Erkidegoan eta nazioartean garatzen diren ekimenen jarraipena egitea, eta Gipuzkoako Lurralde Historikorako interesgarritzat hartzen diren ekimenetan parte hartzea.

- Ildo horretan, bereziki azpimarragarria da *Berdintasunerako Organoaren* eta Genero Berdintasunaren Europako Institutuaren (EIGE) arteko lankidetzak, *Genero-ikuspegia Europako egitura- eta inbertsio-funtsetan txertatzeko Adituen Batzordean* aktiboki parte hartzean.

Emakumeen eta gizonen berdintasunari lotutako epaimahai, batzorde eta lantaldeetan parte hartzea.

Foru Araua eta generoaren esparruan indarrean dauden gainerako araudiak betetzen direla zaintzea.

- Ildo horretan, oso esanguratsuak dira 2018ko uztailan abian jarritako bi departamentuko departamentu-unitateak (*Gobernantza Departamentukoa* eta *Ogasun eta Finantza Departamentukoa*, hain zuzen ere) eta *Gizarte Politiketako Departamentuan* hirugarren unitate bat abian jartzeko aurreratuta dauden kudeaketak.

Berdintasunerako foru-egiturak eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako departamentu-unitateak bultzatu, koordinatu eta aholkatzea, 11. artikuluan deskribatutako funtzioen arabera.

- Ildo horretan, 2018ko uztailan berdintasunerako bi lehen departamentu-unitateak sortu izanari esker, lan hau unitate horiekin hasi ahal izan da. Horretarako, baterako hainbat bilera egin, funtzioak koordinatu eta unitate horietarako berariazko prestakuntza-plan bat diseinatu da. Aurreikusitakoaren arabera, berariazko prestakuntza hori 2019an egingo da, hirugarren departamentu bateko berdintasunerako departamentu-unitatea abian jartzen denean (departamentuak horretarako kudeaketak hasi ditu 2018an).



Gizonen eta emakumeen bizitza pertsonala, familia-bizitza eta bizitza profesionala zaindu eta uztartzean erantzunkidetasuna bultzatzeko baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioen sorkuntza eta egokitzea bultzatu eta proposatzea.

- Ildo horretan, azpimarratu beharra dago 2018an Beasaingo udal-agenteeekin egindako diagnostikoa, *Gipuzkoako Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planeko* "Herrilab Beasain" ekintzaren esparruan. Ekintza horrek jarraitutasuna izango du 2019an, diagnostiko horretan proposatzen diren ekintzen garapenarekin.

2.2.2.- 2015ean, 2016an eta 2017an hasi ziren eta 2018an era esanguratsuan zabaldu gabe garatu diren helburuak eta funtzioak honako hauek dira:

Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuei eta haren mendeko gainerako entitate eta organoei genero-ikuspegia politika, programa eta ekintza guztietan, maila guztietan eta fase guztietan txertatzeko laquntza eta aholkularitza ematea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarritzko gizarte-eskubideak baliatzeko aukera bermatzera bideratutako programa eta zerbitzu espezifikoak egokitu eta sor ditzan bultzatu eta proposatzea.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan dauden diskriminazio-egoerak detektatzea, eta egoera horiek desagerrarazteko neurriak diseinatu eta bultzatzea.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udaletan berdintasunerako egitura teknikoak sortu eta indartzeko aukera bultzatzea.

- Ildo horretan, azpimarragarriak dira Legorreta, Zaldibia eta Segurako udalekin 2019an beren berdintasun-arloak sortu eta abian jartzeko egindako kudeaketak.

2.2.3.- 2018an landu ez diren helburuak eta funtzioak honako hauek dira:

Gipuzkoan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko ekintza positiboko berariazko neurriak diseinatu eta bultzatzea.

2.3.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO DEPARTAMENTU-UNITATEEN FUNTZIOAK.

2018. urtearen lehen erdialdean, funtzio horien garapena 2017koaren antzekoa izan da. Hau da, Foru Arauak *departamentu-unitateei* esleitutako funtzio batzuk ez ziren landu, beste batzuk *Berdintasunerako Organoak* bere gain hartu eta landu zituen, eta beste batzuk, berriz, Aldundiko koordinazio-egitura orokorrek. Koordinazio-egitura orokor horiek hilean behin biltzen dira, eta Kudeaketa Plan Estrategikoaren eta zeharkako foru-politiken jarraipena egitea dute helburu.

2018. urtearen bigarren erdialdean, uztaildean berdintasunerako lehen bi departamentu-unitateak sortu zirenez geroztik, unitate horiek beren funtzio batzuk betetzen hasi ziren, *Berdintasunerako Organoak* landutako mailakako proposamen bati jarraikiz. Proposamen horretan, sortutako unitateen berariazko prestakuntzarik eza (prestakuntza hori planifikatuta dago dagoeneko, eta 2019an egitea aurreikusi da), unitate horien dedikazio partziala (lanaldi-erdia) eta urtea amaitzeko geratzen ziren lan-hilabeteak hartu ziren kontuan.



Logikoa denez, baldintza horiek baldintzatu egin dituzte bi unitate horiei lehen hilabeteetarako esleitutako funtzioak lantzeko eta garatzeko aukerak. Hori dela eta, funtzio batzuk *Berdintasunerako Organoak* bete ditu nagusiki.

Bestalde, gainerako departamentuen egoera urtearen lehen erdialdearen kasuan deskribatutako bera izan zen 2018. urte osoan.

2.3.A.- SORTUTAKO DEPARTAMENTU-UNITATEEI 2018AN ESLEITUTAKO FUNTZIOAK

A1) Sortutako departamentu-unitateek urtean landu eta garatu dituzten funtzioak:

Eskatzen bazaie, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoarekin lankidetzan jardutea Foru Arauaren 8. artikuluan aurreikusitako funtzioak betetzeko.

Departamentuan Foru Arauaren betetze-mailaren eta berdintasun-politiken garapenaren jarraipena egitea. Jarraipen horren emaitzen arabera, dauden oztopoak eta desberdintasunak desagerrarazteko eta emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egiteko bidezko neurriak proposatuko dituzte.

2/2015 Foru Araua betetzen dela zaintzea.

Sortutako bi departamentu-unitateak funtzio horiek lantzen hasi dira 2018. urtean. Aurreikusi denez, neurri handiagoan garatuko dira 2019an hirugarren departamentu bateko unitatea abian jarri eta berriazko prestakuntza jaso ondoren.

Berdintasunerako departamentu-unitateak abian jarri ez diren departamentuetan, funtzio horiek *Berdintasunerako Organoak* bete ditu oro har eta generikoki, batez ere departamentuek eskatuta. Baina, logikoa denez, organo horrek ezin izan ditu landu berdintasunerako departamentu-unitateek eratzen direnean eta beren funtzioak betetzeko beharrezkoa den berriazko prestakuntza jasotzen dutenean agertuko duten espezifikotasun eta xehetasunarekin.

A2) *Berdintasunerako Organoak* urtean landu eta garatu dituen funtzioak, neurri batean bederen:

Departamentuko langileak eta, hala badagokio, departamentuari atxikitako organismo autonomoetako, enpresa-entitate publikoetako eta merkataritza-sozietateetako langileak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan aholkatzea, hain zuzen ere genero-eraginaren alde aurreko ebaluazioa egiteko prozesuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikuluetan eta hurrengoetan desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko aurreikusitako neurriak txertatzeko garaian.

Dagokion departamentuaren eta, hala badagokio, departamentuari atxikitako organismo autonomoen, enpresa-entitate publikoen eta merkataritza-sozietateen arau, politika, programa eta ekintzetan genero-ikuspegiaren integrazioa bultzatzea.

Departamentuaren kontratu eta diru-laguntzetan eta departamentuari atxikitako organismo autonomoen, enpresa-entitate publikoen eta merkataritza-sozietateen kontratu eta diru-laguntzetan berdintasun-klausulak bultzatzea, berrikustea eta haien jarraipena egitea.

Funtzio horiek *Berdintasunerako Organoak* bete ditu, oro har eta generikoki, departamentu guztietan, batez ere departamentuek eskatuta. Baina, logikoa denez, organo horrek ezin izan ditu landu berdintasunerako departamentu-unitateek eratzen direnean eta beren funtzioak betetzeko



beharrezkoa den berariazko prestakuntza jasotzen dutenean agertuko duten espezifikotasun eta xehetasunarekin.

A3) Departamentu-unitateei esleitu zaizkien funtzioen artean urtean landu eta garatu ezin izan direnak:

Departamentuaren eta, hala badagokio, departamentuari atxikitako organismo autonomoen, enpresa-entitate publikoen eta merkataritza-sozietateen jarduera-esparruetan ekintza positiboko berariazko neurriak diseinatu eta bultzatzea.

Foru Arauaren 20. artikuluan aurreikusitako Gipuzkoako Foru Aldundiaren emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru-plana garatzeko, departamentuaren eta, hala badagokio, departamentuari atxikitako organismo autonomoen, enpresa-entitate publikoen eta merkataritza-sozietateen berdintasunerako planak edo programak proposatzea.

Departamentua eta, hala badagokio, departamentuari atxikitako organismo autonomoak, enpresa-entitate publikoak eta merkataritza-sozietateak berdintasun-arloan aholkatzea, garatzen dituzten politika sektorial zehatzei dagokienez.

2.3.B.- SORTUTAKO DEPARTAMENTU-UNITATEEI 2018AN ESLEITU GABEKO FUNTZIOAK

B1) *Berdintasunerako Organoak* urtean era esanguratsuan landu eta garatu dituen funtzioak:

Dagokion departamentuko organoei laguntza ematea, eta beharrezkoa bada, departamentu horri atxikitako foru-organismo autonomoetako, enpresa-entitate publikoetako eta merkataritza-sozietateetako organoei entitate horien guztien esparruan gertatzen diren diskriminazio-egoeren arretan, prebentzian, jardunean eta desagerraraztean laguntzea.

Departamentuko langileei eta, hala badagokio, departamentuari atxikitako organismo autonomoetako, enpresa-entitate publikoetako eta merkataritza-sozietateetako langileei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza emateko berariazko programak diseinatzea eta haien jarraipena egitea.

- Ildo horretan, azpimarratu beharra dago Gipuzkoako Foru Aldundiko langileei berdintasun-arloko prestakuntza-ibilbide osatu bat eskainiko dien urte anitzeko prestakuntzako esparru-plana (JAKITUN programaren esparruan).

Departamentu eskudunarekin Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean eta Gipuzkoako Foru Aldundiak emakumeen eta gizonen berdintasunerako onartutako plan eta programetan ezarritako xedapenak betetzeko koordinatzea eta lan egitea.

- Ildo horretan, esanguratsua eta aipagarria da “Gipuzkoako hondakinak kudeatzeko Plan integrala” lantzeko fasean *Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuarekin* bertan genero-ikuspegia txertatzeko egindako lana.

Departamentuaren eta, hala badagokio, departamentuari atxikitako organismo autonomoen, enpresa-entitate publikoen eta merkataritza-sozietateen jarduna genero-ikuspegitik aztertzea, Foru Arauaren III. Tituluan aipatzen diren gaien inguruan.

- Ildo horretan, oso esanguratsua eta azpimarragarria da, gure inguruneko administrazio publikoen arau-produkzioan aitzindaria delako, 2015ean Foru Araua onartu zenez geroztik genero-eragina alde aurretik ebaluatzeko egindako prozesu guztien kanpoko ebaluazioa. Ebaluazio horretan, foru-departamentu guztietako prozesuak aztertu dira, eta, kasu



bakoitzean, arau-proiektua, genero-eraginaren aldez aurreko ebaluazioa, dagokion egiaztapen-txostena eta aldizkari ofizialean behin betiko argitaratutako araua konparatu dira. Identifikatutako hobekuntza-esparruetan jardungo da 2019an.

Departamentuaren eta, hala badagokio, departamentuari atxikitako organismo autonomoen, enpresa-entitate publikoen eta merkataritza-sozietateen jarduketa-esparruan, emakumeen eta gizonen berdintasunari lotutako epaimahai, batzorde eta lantaldeetan parte hartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiari edo *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu Unitateari* eskatzen zaionean.

B2) Foru-koordinazioko departamentu-egiturei eta departamentu artekoei dagozkien eta egitura horiek urtean landu eta garatu dituzten funtzioak:

Funtzio horiek 2017an sortutako foru-politika orokorrak koordinatzeko eta horien jarraipena egiteko egituren esparru globalean bete dira. Departamentuen barruko eta departamentuen arteko egitura horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren Plan Estrategikoa eta zeharkako politikak (eta, haien artean, berdintasunerako foru-politikak) koordinatzen dituzte.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako departamentu barruko egiturak bultzatu eta koordinatzea, hain zuzen ere Foru Arauaren 14. artikuluan aipatzen direnak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egin diren eta egingo diren jardunak bateratu, baloratu eta koordinatzeko.

Departamentua eta, hala badagokio, departamentuari atxikitako organismo autonomoak, enpresa-entitate publikoak eta merkataritza-sozietateak ordezkatzea Gipuzkoako Foru Aldundian Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu arteko Batzordea eta Talde Teknikoa eta, departamentu bakoitzean, Departamentu barruko Unitateak sortzeko eta osaera zein funtzionamendua arautzeko *irailaren 9ko 68/2008 Foru Dekretuan (apirilaren 17ko 18/2012 Foru Dekretuaren bidez edota ondorengo aldaketen bidez aldatua)* departamentuen artean koordinatzeko aurreikusitako foru-egitura teknikoan.

B3) 2018an garatu ez diren funtzioak:

Departamentuaren jarduera-esparruetan, diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarriko gizarte-eskubideak jasotzen dituztela bermatzeko neurriak bultzatu eta proposatzea.

Dagokion departamentuaren eta departamentuari atxikitako organismo autonomoen, enpresa-entitate publikoen eta merkataritza-sozietateen barruan emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa aplikatzen dela zaintzea.

2.4.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO KOORDINAZIO ETA GIZARTE-SOLASKIDETZAKO EGITURAK

2.4.1.- Departamentuen artean koordinatzeko egitura politiko eta teknikoak

Egitura horiek 2017an sortutako foru-politika orokorrak koordinatzeko eta horien jarraipena egiteko egituren esparru orokorrean txeratu dira. Egitura horiek, departamentu guztien parte-hartzearekin, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Plan Estrategikoa eta zeharkako politikak (eta, haien artean, berdintasunerako foru-politikak) koordinatzen dituzte.



Departamentuen artean koordinatzeko egiturak (DAB, Departamentuen Arteko Batzordeak) ordezkari politikoak eta teknikoak du, eta hilean behin biltzen da gutxi gorabehera.

2018. urtean, hamar bilera egin dira Plan Estrategikoaren eta zeharkako politiken jarraipena egiteko. Esparru orokor horretan, berdintasunerako berariazko politiken koordinazioak eta jarraipenak, aurreikusitako programazioaren jarraipenak eta 2018an egindako ekintzek denbora espezifiko, programatu eta prestatu bat izan dute departamentu arteko hamar bilera horietako lautan.

Koordinazio eta jarraipen orokorreko departamentu arteko bilerek berdintasuna Kudeaketa Plan Estrategikoan, “Etorkizuna Eraikiz” proiektuan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioan, Aldundiaren modernizazio-proiektuetan, aniztasunari, parte-hartzeari, euskarari eta estrategia digitalari lotutako politiketan eta departamentuen politika sektorialetan zeharka txertatzea ahalbidetu dute.

- Ildo horretan, esanguratsuak eta azpimarragarriak dira Beasainen hasitako “HerriLab” esperientzia eta “Etorkizuna Eraikiz” proiektuaren, *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planaren* eta “Erantzunkide Sarearen” esparruan egindako jarduketak.

Proiektu horietako batzuek koordinazioa eta jarraipena egiteko bilera propioak izan dituzte Departamentu Arteko Batzordearen koordinazio-egituratik kanpo, eta, horren bidez, departamentu arteko koordinazioa zein berdintasuna proiektu horietan txertatzeko prozesua zabaldu eta osatu dira.

- Ildo horretan, azpimarratu beharra dago *Berdintasunerako Organoak* “Etorkizuna Eraikiz Think Tank” proiektuaren inguruko berariazko sei bileretan eta “Ekinez ikasi” lan-prozesuaren inguruko bilera batean parte hartu duela.

2.4.2.- Departamentuen barruan koordinatzeko egitura politiko eta teknikoak

Departamentuen barruan koordinatzeko egitura (DBB, Departamentu Barruko Batzordea) ere hilean behin biltzen da gutxi gorabehera, eta beti egiten da departamentu barruko bilera bat departamentu arteko bilera bakoitzaren aurretik eta ondoren.

Berdintasunerako berariazko politiken koordinazioa eta jarraipena berariaz eta esplizituki aztertu dira departamentu barruko bilera horietan. Horri esker, foru-departamentuek 2018rako programatutako berdintasunerako ekintzen diseinua, garapena eta jarraipena landu ahal izan da bilera horietan.

2.4.3.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gizarte-solaskidetzako egitura

GUNEA mugimendu feministaren eta emakumeen elkarte eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko solaskidetzarako esparrua da. 2014an sortu zenetik, 30 elkarte inguruk parte hartu dute bertan.

GUNEAREN egiturari eta funtzionamenduari buruzko gogoeta-prozesua 2017an hasi eta 2018ko apirilean amaitu zen. Txosten honen 3.2.2 puntuan, horri eta 2018ko jardueri buruzko informazio gehiago eskaintzen da.



2.5.- EGINDAKO LANERAKO HURBILKETA KUANTITATIBOA

Hurbilketa kuantitatiboa 2015-2016ko eta 2017ko jarraipen-txostenekin bezala egin da. Hau da, kapitulu bakoitzean era esanguratsuan edota partzialki eta era sinplean landu edo garatu diren itemen guztizko kopurua hartu da kontuan.

Ehunekoak item bakoitzean aldez aurretik emandako datu eta azalpenen zenbatespen kuantitatiboa dira, eta, beraz, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Titulu honetako itemek garapenaren inguruko hainbat esanahi eta balio dituzte alde batetik, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruko hainbat eduki, konplexutasun eta eragin bestetik. Izan ere, item batzuk helburu edo funtzio jakin bati dagozkio, eta beste batzuk, berriz, egitura bati.
- Ehunekoa Foru Arauan kapitulu bakoitzean garatzeko jasotako itemen guztizko kopuruan oinarrituta kalkulatu da. Adibidez, *Berdintasunerako Organoaren* kasuan, 2018an landutako 23 funtzioen ehunekoa Foru Arauak *Organo* horretarako jasotzen dituen funtzio guztietan (24 funtzio) oinarrituta kalkulatu da, eta, beraz, % 71 izan da 2018an.
- Taulak, halaber, 2015-2016ko eta 2017ko jarraipenen hurbilketa kuantitatibo bat eta Foru Araua 2015ean onartu zenetik 2018ko abenduaren 31ra arte metatutako lana zenbatesten duen azken zutabe bat biltzen ditu.

I. TITULUA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ESKUMENAK, FUNTZIOAK, ANTOLAKETA ETA FINANTZAKETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO	2016ko jarraipena 2015-2016an landutako itemak		2017ko jarraipena 2017an landutako itemak		2018ko jarraipena 2018an landutako itemak		2015-2018an metatua 2015-2018an landutako itemak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<i>Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa</i> ; funtzioak: Foru Arauak 24 item edo funtzio jasotzen ditu guztira.	19/24	% 79	17/24	% 71	23/24	% 96	23/24	% 96
<i>Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa</i> , langile- baliabideak: Foru Arauak 4 item jasotzen ditu guztira	2/4	% 50	0/4	% 0	0/4	% 0	2/4	% 50
<i>Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu Unitateak</i> , langile-baliabideak: Foru Arauak 3 item jasotzen ditu guztira Berritasuna 2018an: bi departamentuko departamentu-unitateen abiaraztea eta hirugarren departamentu baterako kudeaketak	1/3	% 33	0/3	% 0	0,5/3	% 17	1,5/3	% 50



I. TITULUA: GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ESKUMENAK, FUNTZIOAK, ANTOLAKETA ETA FINANTZAKETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO	2016ko jarraipena 2015-2016an landutako itemak		2017ko jarraipena 2017an landutako itemak		2018ko jarraipena 2018an landutako itemak		2015-2018an metatua 2015-2018an landutako itemak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<i>Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu Unitateak</i> , funtzioak: Foru Arauak 18 item edo funtzio jasotzen ditu guztira. Berritasuna 2018an: eraturako departamentu-unitateek beren gain hartutako funtzioak, <i>Berdintasunerako Organoa</i> eta koordinazio eta jarraipenerako foru-egiturak	7/18	% 39	7/18	% 39	13/18	% 72	13/18	% 72
<i>Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gizarte-solaskidetzako egiturak</i> : Foru Arauak 5 item edo egitura jasotzen ditu guztira. Berritasuna 2018an: departamentuen barruan eta departamentuen artean koordinatzeko foru-egiturak eta Gunean amaitutako prozesua	3,8/5	% 76	4,5/5	% 90	5/5	% 100	5/5	% 100

Zenbatespen kuantitatiboaren bidez, honako alderdi hauek ikus daitezke 2018ko jarraipenean:

- **Gorakada** 2018an **landutako funtzioetan** eta garatutako itemetan eta 2015-2018ko metatuan, Foru Arauaren I. Tituluko ia kapitulu guztietan.
- Bereziki esanguratsuak eta garrantzitsuak dira **2018ko uztailean** bi foru-departamentutan **abian jarritako berdintasunerako departamentu-unitateak** eta hirugarren departamentu batean 2019an abian jartzeko egindako kudeaketak. 4/2005 Legean berdintasun-egituretarako jasotako ezinbesteko berariazko prestakuntza 2019an egiteko dagoela, lehen bi unitateak abian jarri izanak, logikoa denez, berdintasunerako departamentu-unitate horiei esleitutako funtzioak lantzeko jarduerak gora egitea eragin du 2018an.
- Oso garrantzitsua eta azpimarragarria da, halaber, ***Berdintasunerako Organoaren funtzioak lantzeko jardueraren gorakada***; izan ere, ia funtzio guztiak landu dira (haietako asko berdintasunerako jarduketa esanguratsuekin).
- Era berean, azpimarragarria da berdintasunerako **gizarte-solaskidetzako egitura guztiak lantzeko prozesua osatu izana**.
- *Berdintasunerako Organoko* langile-baliabideei lotutako egitura-alderdiei buruzko kapitulua soilik **geratu da garatu gabe 2018an**, eta, beraz, ez da gehikuntzarik izan 2015-2018 aldian metatutakoan.



2.6.- 2018AN LANDUTAKO JARDUKETARIK ESANGURATSUENAK ETA TITULU HONETAKO ITEMEI DAGOKIENEZ GERATZEN DIREN ERRONKAK

2018an egindako jarduketarik esanguratsuenen artean, honako hauek azpimarra daitezke: *Gobernantza Departamentuan eta Ogasun eta Finantza Departamentuan berdintasunerako lehen bi departamentu-unitateak abian jarri izana*, eta Gizarte Politiketako Departamentuan hirugarren unitate bat abian jartzeko hasitako administrazio-kudeaketak.

2018ko uztailean berdintasunerako lehen bi departamentu-unitate horiek sortzearen bidez, *Berdintasunerako Organoa* unitate horiekin lan egiten hasi ahal izan da. Horretarako, hainbat bilera egin dira elkarrekin, 2/2015 Foru Arauan unitate horietarako jasotako funtzioak koordinatu dira eta unitate horietarako berriazko prestakuntza-plan bat diseinatu da. Aurreikusitakoaren arabera, berriazko prestakuntza hori 2019an egingo da, hirugarren departamentuko berdintasunerako departamentu-unitatea abian jartzen denean (departamentuak horretarako kudeaketak hasi ditu 2018an).

Oso esanguratsuak dira, halaber, honako hauek:

- Berdintasunerako departamentu-unitateetarako berriazko prestakuntza-plana eta Gipuzkoako Foru Aldundiko langile guztiei zuzendutako berdintasun-arloko prestakuntzako urte anitzeko plana (JAKITUN programaren esparruan).
- 2015-2018 aldian foru-araudiaren arabera genero-eragina aldez aurretik ebaluatzeko egindako prozesu guztien kanpoko ebaluazioa.
- “Gipuzkoako hondakinak kudeatzeko Plan Integralean” genero-ikuspegia txertatu izana.
- Beasaingo udal-agenteeekin diagnostiko bat egin izana, “HerriLab” ekimenaren esparruan.

Geratzen diren erronkei dagokienez, *Berdintasunerako Organoari* lotutako egitura-alderdien garapena azpimarratu behar dugu, alderdi horiek ez baitira neurri handiagoan landu eta garatu 2018. urtean.

2.6.1.- Jarduketarik esanguratsuenak

→ Gorakada 2018an landutako funtzioetan eta garatutako itemetan eta 2015-2018ko metatuan, I. Tituluko bost kapituluetakoa lautan.

→ 2018ko uztailean, bi departamentuko departamentu-unitateak jarri dira abian, (*Gobernantza Departamentukoa eta Ogasun eta Finantza Departamentukoa*, hain zuzen ere), eta *Gizarte Politiketako Departamentuan* hirugarren unitate bat abian jartzeko kudeaketak aurreratuta daude.

→ 2018an sortutako *Berdintasunerako Departamentu Unitateei* zuzendutako berriazko prestakuntza-plana landu da.

→ Gipuzkoako Foru Aldundiko langileei berdintasun-arloko prestakuntza-ibilbide osatu bat eskainiko dien berdintasun-arloko urte anitzeko prestakuntza-plan baterako proposamena landu da, JAKITUN programaren barruan).



<p>→ 2015ean Foru Araua onartu zenez geroztik Gipuzkoako Foru Aldundian genero-inpaktua alde zuzenetik ebaluatzeko egindako prozesu guztien kanpoko ebaluazio bat egin da. Ebaluazio hori aitzindaria da gure ingurunekeo administrazio publikoen arau-produkzioan, eta foru-departamentu guztietako arau-prozesu guztiak aztertu ditu Foru Araua onartu zenez geroztik. Kasu bakoitzean, arau-proiektua, genero-eraginaren alde zuzeneko ebaluazioa, dagokion egiaztapen-txostena eta aldizkari ofizialean behin betiko argitaratutako araua konparatu dira. Identifikatutako hobekuntza-esparruetan jardungo da 2019an.</p>
<p>→ <i>Berdintasunerako Organoak Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuarekin</i> “Gipuzkoako hondakinak kudeatzeko Plan integrala” lantzeko fasean genero-ikuspegia txertatzeko egindako lana eta koordinazioa.</p>
<p>→ <i>Berdintasunerako Organoak</i> “Etorkizuna Eraikiz Think Tank”, “Herrilab” eta “Ekinez ikasi” proiektuen diseinua, plangintza eta jarraipena egiteko bileretan parte hartu du, ekimen horietan guztietan genero-ikuspegia txertatzeko.</p>
<p>→ Legorreta, Zaldibia eta Segurako udalekin kudeaketak egin dira, 2019an beren berdintasun-arloak eta berdintasunerako egitura teknikoak sortu eta abian jartzeko.</p>
<p>→ 2018an, diagnostiko bat egin da Beasaingo udal-agenteeekin, <i>Gipuzkoako Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planeko</i> “Herrilab Beasain” ekimenaren esparruan. Ekimen horrek jarraitutasuna izango du 2019an, diagnostiko horretan proposatzen diren ekintzen garapenarekin.</p>
<p>→ 2018an, GUNEAREN (hots, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako mugimendu feministaren eta emakumeen elkarrekin mugimenduaren arteko solaskidetza politikoko gunearen) egiturari eta funtzionamenduari buruzko gogoeta egiteko prozesua (2017an hasi zena) amaitu zen.</p>
<p>→ Aurreikusitakoaren arabera 2019. urtearen hasieran egingo den “Feminismoa 4.0: feminismoaren olatu berriaren irakurketa sozialak eta politikoak” Nazioarteko Kongresua prestatu da.</p>

2.6.2.- Geratzen diren erronkak

<p>→ Langileen premiei buruzko txostenetan <i>Berdintasunerako Organoaren</i> egitura-baliabideei dagokienez zehaztutako hobekuntzak lantzea eta garatzea.</p>
<p>→ 2018an <i>Berdintasunerako Departamentu Unitateak</i> sortzeko eta abian jartzeko hasitako prozesua amaitzea.</p>



3.-. II. TITULUA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO BERARIAZKO POLITIKAK

2/2015 Foru Arauak ez du epe zehatzik ezartzen II. Tituluan landutako ezein alderditarako, eta, beraz, atal honen jarraipena egiteko, 2/2015 Foru Arauaren II. Tituluko 18. artikuluan aipatutako lau jarduera-esparruei, hurbilketa kuantitatibo zenbatetsiari eta jarduketarik esanguratsuenen eta geratzen diren erronken laburpenari jarraitu zaie.

Berariazko berdintasun-politikak direla kontuan hartuta, *Berdintasunerako Organoa* da, funtsean, jarduera guztiez arduratu dena, ekintzaren batean zuzenean inplikaturako beste departamenturen batekin lan egin badu ere.

3.1.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO TOKIKO POLITIKA PUBLIKOEN SUSTAPENA

Tokiko politika publikoen sustapenaren arloan, Foru Arauak ezartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak **bost funtzio hartuko dituela bere gain** gutxienez. Hona hemen 2018an funtzio horien inguruan landutako jarduerak:

3.1.1.- Udalerriei laguntza ematea emakumeen eta gizonen berdintasunerako tokiko politikak sortu eta finkatzeko eta helburu horretarako udal-tresna arauemaileak ezartzeko.

2018. urtean alderdi horren inguruan egindako jarduketak lurraldeko berdintasun-arloko teknikarien lan-eremuari eta Berdinbidean eta Berdinbidean txikiak programei lotuta daude nagusiki. 3.1.4 eta 3.1.5 ataletan, programa horiei buruzko informazio xehatua ematen da.

3.1.2.- Gipuzkoako udalerrietan emakumeen eta gizonen berdintasunerako proiektu estrategikoak babestea.

2018. urtean, honako jarduketa hauek egin dira:

DIRU-LAGUNTZETARAKO DEIALDIA: Tokiko berdintasun-proiektu estrategikoak garatzeko 2018ko deialdian, 18 entitatek, 17 udalek eta mankomunitate 1ek parte hartu dute, eta 31 proiektu aurkeztu dira guztira. Horietatik, 17 entitateren 30 proiektu babestu dira, 200.000 euroko guztizko zenbatekoarekin.

3.1.3.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako organoak sortzen eta indartzen laguntzea, dagokion toki-administrazioako lanpostuen zerrendan ageri diren teknikari espezializatuekin.

2019. urtean Legorreta, Zaldibia eta Segurako berdintasun-arlo teknikoak sortzeko eta abian jartzeko beharrezkoak diren kudeaketak egin dira 2018an.



3.1.4.- Udalerrri txikiei laguntza ematea emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal-politikak garatzeko, bereziki baliabide ekonomikoen eta langile-baliabideen egitura-baldintzei lotutakoak.

2018. urtean, honako jarduketa hauek egin dira:

BERDINBIDEAN PROGRAMA: Programa garatzen jarraitu da. Programa Gipuzkoako 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei zuzenduta dago, eta udalerrri horiei beren aukeren eta mugen arabera berdintasun-politikak garatzeko aholkularitza, prestakuntza eta laguntza eskaintzea du helburu.

- 18 udalerrri eta 2 mankomunitatek parte hartu dute, eta haiekin egindako lana honako formatu hauetan egituratu da:
 - o 19 saio indibidualizatu eta pertsonalizatu.
 - o 6 mintegi kolektibo.
 - o 11 prestakuntza-saio 7 udalerritan.
- Gainera, ekintza eta jarduketa zehatzak egin dira 14 udalerritan eta 2 mankomunitatetan, honako eduki hauekin:
 - o Indarkeria matxistaren prebentzioa (ekintzen % 65).
 - o Emakumeen ahalduntzea (ekintzen % 30).
 - o Mainstreaminga (ekintzen % 5).

BERDINBIDEAN TXIKIAK PROGRAMA: Gipuzkoako 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei zuzendutako programa hau garatu da. Programak udalerrri horiei beren aukeren eta mugen arabera berdintasun-politikak garatzeko aholkularitza, prestakuntza eta laguntza eskaintzea du helburu.

- Haiekin egindako lana honako formatu eta eduki hauetan egituratu da:
 - o 2 mintegi kolektibo egin dira.
 - o 10 udalerrri planteatutako galde-sortari erantzun diote.
 - o 6 udalerrri ekintzen baterako diseinuan parte hartu dute.

3.1.5.- Sareko lankidetzak-eremuak martxan jarri eta garatzea, bai maila politikoan bai maila teknikoan, era horretan, koordinazioa, trukea eta ikaskuntza sustatzeaz gain, udal- eta lurralde-mailan lan-prozesu kolektiboak abian jartzeko.

2018. urtean, honako jarduketa hauek egin dira:

LURRALDEKO BERDINTASUN-ARLOKO TEKNIKARIEN LAN-EREMUA: lan kolektiboko eremuari jarraitutasuna eman zaio. Bertan, hogeit hamar udalerrri inguru ari dira parte hartzen, berdintasun-arloko langileen bitartez. Udalerrri horiek berdintasunerako politikak garatzeko esparru egonkor bat dute dagoeneko, berdintasun-arloak, plangintza, berariazko aurrekontua eta langile espezializatuak baitituzte.

2018an egindako lana 13 mintegi kolektibotan egituratu da, honako eduki eta lan-arlo hauen inguruan:



- Generoko mainstreaming-estrategia garatzeko 8 mintegi, estrategia hori ezartzeko trebakuntza hobetzerako bideratutako lan-prozesu baten esparruan, udaletan era praktikoan landutako edukiak aplikatzen diren aldi berean.
- Indarkeria matxistari aurre hartzeko 3 mintegi.
- Hezkidetzari buruzko mintegi 1.
- Herriko jaiei buruzko mintegi 1.

BERDINTASUN-MASTERRAREKIKO HITZARMENA: Hitzarmen honen bidez, laguntza ekonomikoa ematen zaio masterrari. Masterraren egoitza UPV/EHUko Gipuzkoako campusa da, eta berdintasun-arloko teknikariak prestatzea du helburu. Laguntza ekonomikoa 10.000 eurora iritsi da, eta 46 pertsona matrikulatu dira 2018an.

3.2.- SARE ETA JARDUNBIDE FEMINISTEN BABESA

Sare eta jardunbide feministak babesteko eremuan, foru-arauak ezartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak **sei funtzio beteko dituela** gutxienez. Hona hemen 2018an funtzio horien inguruan landutako jarduerak:

3.2.1.- Gipuzkoako erakunde feministak eta berdintasunerako emakumeen elkarteak indartzea, betiere horien aniztasuna eta horien parte-hartze soziopolitikoko askotariko moduak kontuan hartuta.

2018. urtean, honako jarduketak hauek egin dira:

“ALARDEZALEAK”: Irungo “Alardezaleak” elkarteak babestea berdintasuneko alardea antolatu ahal izateko. 2018an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Alardezaleak elkartearen arteko lankidetzak-hitzarmenarekin jarraitu da, 30.000 euroko zenbatekoarekin.

3.2.2.- Gipuzkoako mugimendu feministarekiko eta berdintasunaren aldeko emakumeen elkarteekiko solaskidetzak politikoko eta parte-hartzeko esparrua –hain zuzen ere foru-arau honen 15. artikuluan zehaztutakoa– mantendu eta indartzea.

GUNEA Gipuzkoako mugimendu feministaren eta berdintasunaren aldeko emakumeen elkartearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko solaskidetzarako esparrua da. 2018an, lana honako alderdi hauetan oinarritu da funtsean:

Alde batetik, 2018ko apirilean, egiturari eta funtzionamendu-ereduari buruzko gogoeta-prozesua (2017an hasi zena) amaitu zen, proiektu pilotuaren, lan egiteko moduen eta lortutako emaitzen baterako ebaluazioarekin.

Bestetik, honako bi alderdi hauek lantzeko sortutako lantaldeek 2017an egindako txostenak eta proposamenak ezagutarazi dira 2018an:

A) 1. taldearen lan-ildoak (“Indarkeria matxistaren biktimen aitorpena, kalte-ordaina eta eskubideen lehengoratzeari”) *Berdintasunerako Organoak* proposatuta sortu zen, eta *Aurre! Planean* txertatutako jarduketak-ildo bat da (plan hori Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko lehen foru-plana izan zen).



Lantaldea 15 emakume inguruk osatu dute, baina prozesuaren une jakin batzuetan emakume gehiagok parte hartu dute. Adibidez, genero-indarkeriaren eta giza eskubideen arloko aholkulari aditu eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Generoko Diziplina arteko Ikasketetako doktore Bárbara Tardón-ekin eta Emakundeko emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko arloko arduradun Socorro Álvarezekin egindako mahai-inguruan, 36 emakumek hartu zuten parte.

Taldeak honako 4 esparru hauetan planteatu ditu bere proposamenak:

- Administrazio publikoen zeregina: zer egin dezakete administrazio publikoek erreparazio integralean aurrera egiteko? Zer neurri zehatz hartu behar dira?
- Erreparazio integralak prebentzio- eta arreta-politikan duen eragina: Zer zentzutan du eragina “erreparazio integral” kontzeptuak indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeen inguruko prebentzio- eta arreta-politikan? Zer aldaketa zehatz egin beharko lirake arreta-zerbitzuetan, erreparazio integralaren ikuspegitik? Eta prebentzio-politikan?
- Gizarte zibilaren lana: zer zeregin bete beharko lukete elkarteek indarkeria matxistaren arloan? Zer behar dute horretarako? Nola aitor liteke elkarteek indarkeria sexistaren arloan dakarten balioa?
- Biktimak diren emakumeen kolektibo ikusezinak: Indarkeria sexistaren biktimen zer kolektibori eman behar zaio agerikotasuna premia? Zer premia zehatz dituzte?

B) 2. taldearen lan-ildoaren (“Bizitza jasangarria: kontziliazioa, erantzunkidetasuna eta zainketak”) helburua parte-hartzaileen artean gaiaren inguruko baliozko ekarpen bat eraikitzea izan da, *Gipuzkoako Kontziliazio Erantzunkiderako I. Planaren* esparruan.

Lantaldea lan-saio bakoitzean parte hartu duten 10 emakume inguruk osatu dute, prozesuaren une jakin batzuetan emakume gehiagok parte hartu badute ere. Adibidez, *Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioko Azterketa Fiskalen Institutuko* ikerketa-azterlanen buru María Pazosekin eta *Euskal Herriko Unibertsitateko* Ekonomiako katedradun Sara de la Ricarekin egindako mahai-inguruan, 26 emakumek parte hartu zuten. Lan kolektiboaren prozesuan, taldeak *Kontziliazio Erantzunkiderako I. Plana* eta *Gipuzkoako Erantzunkidetasunerako Ibilbide Orria* aztertu ditu proposamen-ikuspegi batetik.

Parte hartu duten emakumeen artean eraikitakoaren emaitzek honako hauek izan dituzte ardatz:

- Plana tresna gisa, eta plana lantzeko prozesua.
- Planak egindako ekarpen nagusiak.
- Planerako gomendioak eta proposamenak.

3.2.3.- Gipuzkoako mugimendu feministak eta emakumeen elkarteek berdintasunaren alde Gipuzkoan abian jarritako proiektu estrategikoei babesa ematea.

2018. urtean, honako jarduketak hauek egin dira:

DIRU-LAGUNTZETARAKO DEIALDIA: Berdintasunerako proiektu estrategikoak garatzeko 2018ko deialdian, 44 elkartek parte hartu dute, eta 71 proiektu aurkeztu dira guztira. 6 elkartek eskatutako betekizunak betetzen ez zituztenez eta proiektu batek eskatutako gutxienezko puntuazioa lortu ez zuenez gero, 38 elkarteren 62 proiektu babestu dira guztira, 250.000 euroko guztizko zenbatekoarekin.



3.2.4.- Emakumeen eta ordena heteropatriarkala hausten duten beste pertsona batzuen parte-hartze soziopolitikoak oztokatzen duten aurreiritzien aurkako borroka eta balio-aldaketa sustatzea.

Ez da ezein jarduketarik egin 2018. urtean.

3.2.5.- Erabaki- eta eragin-esparruetan emakumeen sarbidea areagotzen laguntzea.

2018. urtean, “Etorkizuna Eraikiz” proiektuaren eta *Berdintasunari eta Kontziliazioari buruzko GipuzkoaLab* programan egindako aholkularitza-prozesuen esparruan, diagnostiko bat egin da Beasaingo udal-agente guztiekin, eta jarraitutasuna izango du 2019an, bertan proposatutako ekintzen bidez.

3.2.6.- Emakumeen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatzen duten gunek eta prozesuak sortzen eta finkatzen laguntzea, bereziki emakume gazteena eta ahultasun larrienean dauden emakumeena.

2018. urtean, honako jarduketa hauek egin dira:

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA: 2018. urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Emakumeen Etxearen arteko lankidetzeta-hitzarmenarekin jarraitu da, 40.000 euroko zenbatekoarekin.

3.3.- SENTSIBILIZAZIO SOZIALERAKO, EZAGUTZARAKO ETA PRAKTIKARAKO NEURRIEN GARAPENA

Sentsibilizazio sozialerako, ezagutzarako eta praktikerako neurrien esparruan, Foru Arauak ezartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak **bederatzi funtzio beteko dituela** gutxienez: Hona hemen 2018an landutako jarduerak:

3.3.1.- Gipuzkoan dauden genero-desberdintasunak aztertzea eta horien inguruan sentsibilizazio sozialeko ekintzak abian jartzea, baita berdintasunaren aldekoak ere.

2018. urtean, honako jarduketa hauek egin dira:

“BERDINTASUNA ORAIN”: *Berdintasunerako Organoaren* webgunearen bidezko sentsibilizazioa; webgunea Gipuzkoako gizartean eta sare sozialetan berdintasunaren aldeko kontzientziazio-mezuak zabaltzeko kanala da.

“50-50” KANPAINA: Gipuzkoako errealitatearen hainbat esparrutan dauden genero-arraien inguruko sentsibilizazio-kanpaina. Kanpaina martxoaren 8an hasi zen, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Soziologiako doktore Teresa Tornsek “Kontziliazio erantzunkidea: esanahia, inplikazioak eta erronkak” gaiaren inguruan emandako hitzaldiarekin. Ekitaldi horretatik abiatuta, sentsibilizazio-kanpainak hainbat jarduketa eta measurekin jarraitu du 2018. urte osoan.

- Azpimarratu beharra dago “Eskailera mekanikoak” izeneko esperimendu soziala. Esperimendu hori Lasarte-Orian egin eta grabatu zen, eta hainbat herri eta inguruetan proiektatu eta aztertu da ondoren. Esperimendu sozial horri esker, gure gizartean



emakumeek gizonen baliabide berak eta helburu berak lortzeko dituzten desabantailak bistaratu eta agerian utzi ahal izan dira.

3.3.2.- Sentsibilizazio-ekintzak abian jartzea, genero-erolek eta genero-estereotipoek egungo antolaketa sozioekonomikoaren eredian daukaten garrantziaz jabetzeko.

2018. urtean, honako jarduketa hauek egin dira:

“MARTXOAREN 8A: ERAKUNDE-ADIERAZPENA: Erakunde-adierazpena eta “50-50” sentsibilizazio-kanpainaren hasiera, kanpaina horretako “Erdiak gara, izan gaitezen erdiak” mezua ardatz hartuta.

KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDEARI BURUZKO ENPRESA-TOPAKETA: topaketa hori 2018ko irailaren 19an egin zen, eta Gipuzkoako 69 enpresako 200 pertsonak parte hartu zuten. Topaketa horren edukiak honako hauek ahalbidetu zituen:

- Norvegiak kontziliazio erantzunkidearen inguruan duen esperientzia ezagutzea, Norvegiako Zientzia eta Teknologia Institutuko soziologo Elin Kvande-ren eta Kataluniako Generalitateko Orduategien Aldaketarako Bultzada ekimenaren sustatzaile Alexis Serraren eskutik.
- Gipuzkoako enpresek arlo horretan dituzten esperientziak eta ikasketak, Gipuzkoako enpresa-sareko askotariko ordezkariak (Aspegi, Ikerlan, Matz Erreka, Askora, Matia Fundazioa eta abar).

“DENOK ZU” KANPAINA: emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko sentsibilizazio-kanpaina, ikastetxeetarako bisiten bidez. Kanpaina 2017an hasi zen, eta jarraitu egin du 2018an, lehen urtean arrakasta handia izan baitzuen. Hasierako edukiei genero-estereotipoek eta zainketen esparruko erantzunkidetasunari lotutako beste eduki batzuk gaineratu zaizkie. Kanpainak urte osoan iraun du, eta azaroaren 25ean (Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunean) areagotu egin da.

- Kanpainak hezkuntza-esparrua izan du ardatz, eta Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetan egin da, 2018-2019 ikasturteko lehen hiruhilekoan. Ordubeteko 43 saio egin dira Gipuzkoako eskualde guztietako 23 ikastetxeko ikasle taldeekin, eta 8-12 urteko 1.300 haur inguruk parte hartu dute.
- Saioek bi zati izan dituzte. Lehen saioa indarkeria matxistari, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei eta genero-estereotipoek buruzkoa izan da. Bigarrena, berriz, indarkeria horri aurre egiteko estrategiei buruzkoa izan da: tratu onak eta enpatia, hau da, “denok zu! jarrera”.
- Saioen amaieran, poltsak, eskumuturrekoak eta Goazen! taldearen “Denok zu” abestiaren CDak banatu dira parte-hartzaileen artean. Ikasleek eta irakasleek oso balorazio positiboa egin dute elementu horien inguruan.

3.3.3.- Gazteriari zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak abian jartzea, aniztasun sexualaren ingurukoak eta ikuspegi feministatik genero-identitateak eraikitzeari buruzkoak.

2018. urtean, honako jarduketa hauek egin dira:



“BELDUR BARIK”: Gazteen artean indarkeria matxistari aurrea hartzera bideratuta dagoen eta toki-mailan garatzen den *“Beldur Barik”* izeneko erakunde arteko programa babestu eta bultzatzeko lanarekin jarraitu da.

2018. urtean, programa horretarako laguntza ekonomikoa emateko hitzarmenarekin jarraitu da, 18.000 euroko zenbatekoarekin.

- Guztira, lurralde osoko 74 lan aurkeztu dira, hau da, Euskadin aurkeztutako guztien % 28. Nolanahi ere, kopuruak behera egin du aurreko edizioan aurkeztutako 101 lanekin alderatuta. Beherakada hori lanak aurkezteko epea aurreko urteetan baino laburragoa izan delako gertatu da beharbada. 2018an aurkeztutako 74 lanetatik, 52 Gipuzkoako ikastetxeenak izan dira (hau da, aurkeztutako lanen % 70).
- Aurkeztutako bideoek gai bat baino gehiago (gai nagusi gisa zein bigarren mailako gisa) aipatu ohi dituztela kontuan hartuta, gehien agertu diren gaiak honako hauek izan dira: sexismoaren eta, oro har, diskriminazioaren salaketa (bideoen % 82,53), genero-estereotipoak eta genero-rolak (% 80,67) eta berdintasunaren defentsa, oro har (% 63,20). Bestalde, azpimarratu beharra dago, halaber, emakumeen ahalduntzea, zentzu zabalean hartuta (bideoen % 59,85) eta edertasun-kanonak eta gorputz-kanonak zalantzan jartzea (% 52,04).

3.3.4.- Emakume migratzaileen errealitate desberdinak agerian uztea, baita martxan jarritako laguntza-talde esparruan garatutako lan kolektiboa ere.

2018an, jarduketa horiek lantzen eta garatzen jarraitu da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Azpeitiko Udalak 2017an Azpeitiko *Emakumeen Txokoa*n abian jarritako **“HITZ-AHALDUNTZE”** proiektuarekin jarraitu da, eta 2018an bertan amaitu da. Proiektuaren helburua parte hartzen duten emakume migratzaileak alfabetatzearen bidez ahalduntzea izan da. Proiektua 2017ko urritik 2018ko ekainera bitarte garatu da, eta Aljeria, Pakistan, Maroko, Senegal eta Hondurasko 28 emakumek parte hartu dute guztira. Ekimena *Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Aurre! Foru Planaren* parte da.

- “Hitz-ahalduntzea” irakaskuntza-metodo alternatiboa da, eta alfabetatze-prozesuen bidez emakumeen ahalduntzea bultzatzea du helburu. Programak hezkuntza-materialak egokitzen ditu genero-ikuspegiarekin, eta oso kontuan hartzen du ikasleak zer gizarte-testuingurutan bizi diren. Eskolek hitz- eta jolas-izaera handia izan dute beti. Gainera, emakumeen independentzia, sororitatea eta autoestimua sustatzen duen topagunea da.

“Aniztasuneko Bizikidetzarako Foru Plana: diskriminazio eza bultzatzeko ekintzak” planaren esparruan, **ETXE-ZERBITZUAN LAN EGITEN DUTEN EMAKUME MIGRATZAILEEN KALTEBERATASUN- ETA DISKRIMINAZIO-EGOERA** aztertu da, SOS Arrazakeriak eta UPV/EHUK batera egindako ikerketa-lan baten bidez.

3.3.5.- Ikuspegi transfeministatik, transfobia, lesbofobia, bifobia edo homofobiagatik gizarte-estigmatizazioa eta bazterketa soziopolitikoak jasaten duten pertsonen agerikotasuna eta parte-hartzea areagotzea.

Giza Eskubideen Zuzendaritzak funtzio hori betetzen jarraitu du. 2018an, honako jarduketa hau egin da **“ANIZTASUNEKO BIZIKIDETZARAKO FORU PLANA: DISKRIMINAZIO EZA BULTZATZEKO EKINTZAK”** planaren esparruan:



- 2018ko ekainaren 28an, LGTBI HARROTASUNAREN EGUNA dela eta, sentsibilizazio-jarduera publiko bat egin zen, OihulariKlown taldearen animazio ibiltariko ikuskizun baten bidez.

3.3.6.- Gipuzkoako Foru Aldundiak transexualitatea patologia-izaeraz gabetzeko, agerikotasun lesbikoa areagotzeko eta bazterketa eta eskluasioaren artean dauden elementuak lotzeko kanpainak sustatzera bideratutako jarduketak babestea.

Bizikidetza eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak “ANIZTASUNEN BIZIKIDETZARAKO FORU PLANA: DISKRIMINAZIO EZA BULTZATZEKO EKINTZAK” plana ezartzen jarraitu du. Foru-plan horren arloetako bat Foru Arauak aipatutako kolektiboek eta haiek patologia-izaeraz gabetzeari lotuta dago. 2018ko ekintzarik esanguratsuenetako bat honako hau izan da:

- “BIZIKIDETZA ANIZTASUNEAN. LGTBI+ POPULAZIOAREN ERREALITATEEN DIAGNOSTIKOA GIPIZKOAN (2018)” ikerketa, GEHITUK *Giza Eskubideen Zuzendaritzarentzat* egina. Ikerketa horren bidez, Gipuzkoan bizi diren lesbianek, gayek, transexualek, bisexualak, intersexualek eta arauz kanpoko gainerako sexualitateek bizi dituzten errealitateetarako hurbilketa bat egin izan da.

3.3.7.- Lan sexuala borondatez egiten duten pertsonen agerikotasuna eta parte-hartzea sustatzea, eta horien gizarte-estigmatizazioaren eta bazterketa soziopolitikoaren aurka lan egiten duten kolektiboek laguntza ematea.

2018. urtean, “GIPIZKOAKO PROSTITUZIOARI BURUZKO TXOSTENA” egin da. Txosten hori 2018ko irailetik abendura bitarte egindako lan baten emaitza da. Lan hori Arrats Elkartearen “Aukera” programako lantaldeak 2018ko urtariletik abuztura bitarte jasotako datuekin egin da (programa horrek Gipuzkoako Lurralde Historikoan prostituzioan diharduten pertsonekin lan egiten du 1998. urteaz geroztik).

3.3.8.- Herritarren artean gizonei eta emakumei esleitzen zaizkien zaintza zein rol edo funtzioei buruzko sentsibilizazio-ekintzak bultzatzea.

2018. urtean, honako ekintza hauek egin dira:

KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDERAKO FORU PLANAREN “HERRITARTASUN AKTIBOAREN” LAN-ILDOA: azpimarratu beharra dago 2018an “gizonentzat eta emakumeentzat aukera-eremuak sortzen dituen herritartasun aktiboa” lan-ildoari lotutako honako ekintza hauek egin direla (lan-ildo hori Foru Plana osatzen duten lau etapak bat da, eta Gipuzkoa gizonen eta emakumeen aukera- eta erantzukizun-berdintasuna sustatzen duen lurralde bihurtzea du helburu):

- Egindako sentsibilizazio-kanpainak (50-50).
- Emakumeek zientzian, teknologian edo kirolean parte-hartze eta agerikotasun handiagoa izateko aukera bultzatzea, batez ere hezkuntza-esparruan.
- Udal-esparruan ordutegien eta denboraren erabileren kultura berri bat edo familia-esparruan hezkuntza erantzunkidea sustatzeko jarduketak.
- Gazteriaren eta kirolaren esparruetan programatutako esku-hartzeak Departamentuaren jarduera esanguratsu batzuetan txertatuta daude, eta jarraipena beharko duten intereseko esperientzia pilotu batzuk abian jarri dira.



- Beasainen abian jarritako "HerriLab" proiektua. Proiektu horretan, diagnostiko partekatatu bat egin da, esku hartzeko ildoak zehazten ari dira eta kontziliazio erantzunkideko jardunbideen toki-laborategi bat osatu da.

3.3.9.- Hausnarketa eta ezagutza-trukerako prozesuak sustatzea mugimendu feministaren eta berdintasunaren aldeko emakumeen elkarteetan eta beste kolektibo eta erakunde sozial batzuen, akademiaren eta erakunde publikoen artean, era horretan erakunde publikoetatik beste eredu sozioekonomiko baten definizioa egiteko, bestelako eraikuntza kolektiboa egiteko eta eredu horretarako trantsizioa egiteko, betiere berdintasuna eta pertsonen bizitzaren zaintza oinarritzat hartuta.

2018. urtean, MAHAI-INGURU bat egin da *Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioko Azterketa Fiskalen Institutuko* ikerketa-azterlanen buru María Pazosekin eta *Euskal Herriko Unibertsitateko* Ekonomiako katedradun Sara de la Ricarekin, eta mugimendu feministak, elkarte-mugimenduak eta erakunde publikoek parte hartu dute. Mahai-inguru hori GUNEAREN "Bizitza jasangarria: kontziliazioa, erantzunkidetasuna eta zainketak" lanaren esparruan egin da.

3.4.- INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO FORU-POLITIKAREN DISEINUA, KOORDINAZIOA ETA GARAPENA

Indarkeria matxistaren aurkako foru-politikaren eremuan, foru-arauak ezartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak funtzio orokor bat beteko duela. Hona hemen 2018an landutako jarduerak:

3.4.1.- Indarkeria matxistaren aurkako borrokarako antolatutako foru-politikaren diseinu, jarraipen eta ebaluazioaren koordinazioa bultzatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru-politikaren esparruan antolatutako gizarte-politikaren arloko funtzioak eta eskumenak esleituta dituen Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuarekin.

Aurreikusitakoaren arabera, Aurre! Foru Planak indarkeria matxistaren arloko lau esparru landuko ditu: ikerketa, prestakuntza, prebentzioa eta sentsibilizazioa eta arreta.

2018. urtean, *Berdintasunerako Organoak* egin dituen eta atal honen aurreko azpiataletan adierazi diren ekintzez gain (Berdinbidean, Gunea, Erantzuna emateko Protokolo Instituzionala, Denok Zu, Beldur Barik...), honako jarduketak hauek egin dira *Gizarte Politiketako Departamentuarekin* lankidetzan:

BATZORDE POLITIKO-TEKNIKOAK: Batzorde politiko-teknikoak indarkeria matxistaren arloko bost bilera egin ditu. Gainera, *Aurre! Foru Planaren* esparruan departamentu-ekintzak egiteko bi lantalde eratu dira. Batzorde horrek *Berdintasunerako Organoaren* eta *Gizarte Politiketako Departamentuaren* arteko lankidetzak egituratzen eta bideratzen du.

INDARKERIAREN BIKTIMAK DIREN EMAKUMEEN ARRETARAKO ZERBITZUEN EBALUAZIOA: 2018. urtean, areagotu egin da *Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko Zerbitzuaren* eta *Berdintasunerako Organoaren* arteko baterako lana. Baterako lanaren esparrua zehaztu da, eta lan-praktiketan *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauan* zein *Aurre! Planean* jasotakoa aplikatu da.



Zehazpen horren ondorioz, indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeen arretarako zerbitzuen ebaluazioa batera egiten hasi da (*Aurre! Planaren arabera Gizarte Politiketako Zerbitzuak* egin beharrekoa). Horrela, beraz, arreta-zerbitzuen jarraipenean eta etengabeko hobekuntzan batera lan egiteko oinarriak finkatu dira. Era horretan, arreta-zerbitzuek ikuspegi egokia izatea bermatzen da.

NBE-REN GUTXIENEO ARRETA-ESTANDARRAK: Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako arretari dagokionez, indarkeria jasaten duten emakume eta neskentzako gutxieneko arreta-estandarren betetze-maila testatzera bideratutako prozesu bat egiteko NBEk Emakunderekin burututako lankidetzaren lanarekin eta bilerekin jarraitu da. *Berdintasunerako Organoak* eta *Gizarte Politiketako Departamentuak* parte hartu dute prozesu horretan 2018an.

HAUSNARBIDE: *Berdintasunerako Organoak* indarkeria matxistaren arrazoiaren, adierazpenen eta biktimentzako arretaren inguruan baterako hausnarketa egitea, ikerketa-ildoak identifikatzea eta ezagutzan sakontzea ahalbidetzen duen gune hori jarri du abian 2018an. Gizarte Politiketako Departamentuak beste erakunde eta estamentu batzuekin batera parte hartzen du *Berdintasunerako Organoak* antolatutako gune horretan.

Urtearen barruan, lau lan-saio egin ziren, eta honako gai hauek landu ziren:

- Genero-indarkeriaren arloko estatu-ituna
- Indarkeria sexistaren biktimen erreparazioa
- Indarkeria sexista gizonekin lantzeko modua
- Bortxaketaren eta sexu-ikararen kultura

Saio horietara, arloko adituez gain, lurraldeko indarkeria sexistari aurre egiteko foru-politiketan inplikaturik dauden Aldundiko teknikariak joan ziren, entzule gisa.

JARDUNBIDE EGOKIEN BANKUA: Indarkeria matxistaren balorazioaren, prebentzioaren, arretaren eta biktimen erreparazioaren esparruetako jardunbide egokien banku hori 2017an jarri zen abian, *Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Aurre! Foru Planeko* In3.5, In4.6 eta In17.1 ekintzen inplementazio gisa, eta zabalki garatu da 2018an.

Banku horren arabera, premia baten identifikazioaren ondorioz sistematikoak, eraginkorrak, efizienteak, jasagarriak eta malguak diren ekintzak edo ekintza multzoak dira jardunbide egokiak.

Prebentzioaren eta/edo arretaren eremuan identifikatutako premiari erantzuteaz gain, jardunbide egokien bilaketa Gipuzkoako Foru Aldundiak arlo horretan duen ikuspegiaren ezaugarri bereizgarri diren arreta-printzipioetan oinarrituta dago, eta ahalduz-ikuspegia jartzen da agerian jardunbide egoki horietan.

Dena den, adierazitako ezaugarriak betetzen ez badituzte ere ekimen berriak eta/edo interesekoak (lantzen dituzten gaiak edo indarkeriaren biktimak diren emakumeen sektoreak direla eta) diren beste ekintza batzuk ere kontuan hartzen ditu bankuak.

2018an, jardunbide egokien 32 fitxa identifikatu eta osatu ziren:

- 4 balorazio-tresna.
- Prebentzioaren esparruko 6 jardunbide.
- Arretaren esparruko 15 jardunbide.
- 5 erreparazio-jardunbide.
- Jardunbide egokien 2 banku.



Jasotakoak baino jardunbide egoki gehiago badaude ere, indarkeriaren eta hari aurrea hartzeko eta biktimei laguntzeko esku-hartzearen ikuspegi feminista bat dutenei eman zaie lehentasuna. Indarkeriaren arrazoen analisiari zein arreta indibidualaz haratago doazen proposamenei lotutako ikuspegi feminista dutenei, alegia.

Bestalde, kontuan hartzen duten herritarren sektoreagatik edo lantzen dituzten gaiengatik nolabait ere berriak diren esperientziei ere lehentasuna eman zaie.

3.5.- GARATUTAKO ALDERDIETARAKO HURBILKETA KUANTITATIBOA

Ehunekoak titulu honen item bakoitzean alde zuzenetik emandako datu eta azalpenen zenbatespen kuantitatiboa dira (informazio gehiago 2.5 puntuan).

Ehunekoa Foru Arauan kapitulu bakoitzean garatzeko jasotako itemen guztizko kopuruan oinarrituta kalkulatu da. Adibidez, "Tokiko politika publikoen sustapenaren" kasuan, 2018an betetako 5 funtzioen ehunekoak "Sustapen" horri dagozkion funtzio guztietan (5 funtzio) oinarrituta kalkulatu da, eta, beraz, % 100 izan da.

Foru Arauaren II. Tituluari dagokionez, hurbilketa kuantitatiboak honako parametro hauek islatzen ditu:

II. TITULUA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO BERARIAZKO POLITIKAK	2016ko jarraipena		2017ko jarraipena		2018ko jarraipena		2015-2018an metatua	
	2015-2016an landutako itemak		2017an landutako itemak		2018an landutako itemak		2015-2018an landutako itemak	
Jarraipen-datuak kapituluz kapitulu	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<i>Emakumeen eta gizonen berdintasunerako tokiko politika publikoen sustapena:</i> Foru Arauak 5 item edo funtzio jasotzen ditu guztira Berritasuna 2018an: Legorreta, Zaldibia eta Segurako udalekiko kudeaketak eta akordioak	4/5	% 80	4/5	% 80	5/5	% 100	5/5	% 100
<i>Sare eta jardunbide feministak:</i> Foru Arauak 6 item edo funtzio jasotzen ditu guztira.	4/6	% 67	5/6	% 83	5/6	% 83	5/6	% 83
<i>Sentsibilizazio sozialerako, ezagutzarako eta praktikarako neurrien garapena:</i> Foru Arauak 9 item edo funtzio jasotzen ditu guztira Berritasuna 2018an: Gipuzkoako prostituzioari buruzko txostena	4/9	% 44	7/9	% 78	9/9	% 100	9/9	% 100



II. TITULUA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO BERARIAZKO POLITIKAK	2016ko jarraipena 2015-2016an landutako itemak		2017ko jarraipena 2017an landutako itemak		2018ko jarraipena 2018an landutako itemak		2015-2018an metatua 2015-2018an landutako itemak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Jarraipen-datuak kapituluz kapitulu								
<i>Indarkeria matxistaren aurkako borrokarako foru-politikaren diseinu, jarraipen eta ebaluazioaren koordinazioa bultzatzea: Aurre! Foru Planak 4 item edo alderdi jasotzen ditu (koordinazioa, diseinua, jarraipena eta ebaluazioa)</i>	4/4	% 100	4/4	% 100	4/4	% 100	4/4	% 100

Zenbatespen kuantitatiboaren bidez, honako alderdi hauek ikus daitezke 2018ko jarraipenean:

- 2017an kapitulu guztietan lortutako **lantze-maila handiari eutsi zaio**.
- **Jarduketa esanguratsu berrien gorakada handia** lau tituluetan bildutako alderdi edo ekintza askotan. Bereziki “Sentsibilizazio sozialerako, ezagutzarako eta praktikerako neurriak” kapituluan: “50-50” kanpaina, enprekin kontziliazio erantzunkiderako egindako jarduketak; *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planean* urterako planifikatutako eta egindako ekintzak.
- **Sexu-lana beren borondatez egiten duten pertsonen agerikotasuna eta parte-hartzea lantzen hasi da**, eta haien gizarte-estigmatizazioaren aurka diharduten kolektiboei lagundu zaie.
- Ekintza berrien garapena **“Indarkeria matxistaren aurkako foru-politikaren ebaluazioaren diseinua, koordinazioa eta garapena”** kapituluan; adibidez: erantzun publikoa emateko protokolo eta proposamen instituzionala, baterako hausnarketarako “Hausnarbide” gunea, indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako arreta-zerbitzuen ebaluazioa, eta “Indarkeria matxistaren balorazioaren, prebentzioaren, arretaren eta biktimen erreparazioaren arloko Jardunbide Egokien Bankuan” bildutako jardunbideei dagozkien fitxak identifikatzea eta lantzea.

3.6.- 2018AN LANDUTAKO JARDUKETARIK ESANGURATSUENAK ETA TITULU HONETAKO ITEMEI DAGOKIENEZ GERATZEN DIREN ERRONKAK

Azpimarratu beharra dago Foru Arauaren II. Tituluko kapitulu eta azpikapitulu guztien lantze-mailari eutsi izana eta hainbat kapitulutan (“Sentsibilizazio sozialerako, ezagutzarako eta praktikerako neurriak” eta “Indarkeria matxistaren aurkako foru-politikaren diseinua, koordinazioa eta garapena” kapituluetan) jarduketa esanguratsu berriek izan duten gorakada. Horrek guztiak adierazten duenez, Foru Arauaren alderdi horien lantze- eta garapen-maila gero eta handiagoa eta koherenteagoa da.



2018an landu gabeko ekintzei dagokienez, aurreko urteetan ere landu ez den bat baino ez da azpimarratu behar. Logikoa denez, Foru Arauaren garapenak hainbat urtetako prozesu bat eskatzen du, eta prozesu horretan lehentasunak zehaztu behar dira. Nolanahi ere, gogorarazi beharra dago funtzio hori Foru Arauan ere jasota dagoela eta datozen urteetan aurre egin beharreko erronka bat dela.

Ildo horretan, II. Tituluak 20 funtzio zehazten ditu lehen hiru kapituluetan, eta 4 alderdi orokor laugarren kapituluan. 24 item horietatik, honako hau ez da garatzen hasi: “Emakumeen eta ordena heteropatriarkala hausten duten beste pertsona batzuen parte-hartze soziopolitikoak oztopatzen duten aurreiritzien aurkako borroka eta balio-aldaketa sustatzea”.

3.6.1.- Jarduketarik esanguratsuenak

→ Lurraldeko berdintasun-teknikarien lan-esparruan generoko mainstreaming-estrategien garapenaren eta indarkeria matxistaren prebentzioaren inguruan egindako mintegiak.
→ Gipuzkoako udalerrietako proiektu estrategikoetarako babesa eta Legorreta, Zalbidia eta Segurako udalekin berdintasun-arloez hornitzeko egindako kudeaketak.
→ Indarkeria matxistaren prebentzioa eta emakumeen ahalduntzea Berdinbidean eta Berdinbidean txikiak programen esparruan.
→ GUNEAREN gogoeta-prozesuaren amaiera eta elkarte feministen eta emakumeen elkarten proiektu estrategikoei, “Alardezaleak” elkarteari eta Donostiako Emakumeen Etxeari emandako babesa.
→ <i>Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planeko</i> ekintzen inplementazio handia, “Gizonentzat eta emakumeentzat aukera-eremuak sortzen dituen herritartasun aktiboa” lan-ildoan egindako jarduketan kasuan bereziki.
→ “50-50” sentsibilizazio-kanpaina, dauden genero-arrailek agerian uzteko kanpaina, “BELDUR BARIK” programari lotutakoa eta indarkeria matxistaren prebentziorako “DENOK ZU” eskola-kanpaina.
→ <i>Berdintasunerako Organoak</i> eta <i>Gizarte Politiketako Departamentuak</i> gizarte-politiken arloan <i>Aurre! Foru Planaren</i> barruan batera landutako ekintzen inplementazioa.
→ Laneko eta baterako hausnarketako lau saio garrantzitsu egin dituen “Hausnarbide” gunea abian jarri izana.
→ Indarkeria matxistaren balorazioaren, prebentzioaren, arretaren eta biktimen erreparazioaren esparruetako Jardunbide Egokien Bankurako jardunbide egokien 32 fitxa landu izana.
→ “Bizikidetza aniztasunean. LGTBI+ populazioaren errealitateen diagnostikoa Gipuzkoan (2018)” ikerketa egin izana.
→ “Gipuzkoako prostituzioari buruzko txostena” egin izana.



3.6.2.- Geratzen diren erronkak

→ II. Tituluaren 24 funtzioen artean oraindik hasi ez den bakarra lantzea: emakumeen eta ordena heteropatriarkala hausten duten beste pertsona batzuen parte-hartze soziopolitikoak oztopatzen duten aurreiritzien aurkako borroka eta balio-aldaketa sustatzea.



4.- III. TITULUA: GENERO-IKUSPEGIA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN JARDUERETAN ETA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU-SEKTORE PUBLIKOKO ENTITATEEN JARDUERETAN INTEGRATZEKO NEURRIAK

Atal honetan, 2/2015 Foru Arauaren III. Tituluan epigrafe berean bildutako kapituluaren jarraipena egingo dugu, eta *Berdintasunerako Organoak* eta foru-departamentuek beren jarduerak genero-ikuspegiari jarraikiz egiteko burututako lanaren laburpen bat emango dugu.

Foru Arauak ez du epe zehatzik ezartzen III. Tituluan landutako ezein alderditarako, eta, beraz, atal honen jarraipena egiteko, Foru Arauan planteatutako neurriei, zenbatespen kuantitatiboari eta jardunik esanguratsuenen eta geratzen diren erronken laburpenari jarraitu zaie.

Foru Arauak honako neurri hauek planteatzen ditu foru-jarduerak genero-ikuspegiaren oinarrituta egiteko:

4.1.- BERDINTASUNERAKO FORU PLANAREN PLANGINTZA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA DEPARTAMENTUETAN.

Foru Arauan xedatutakoari jarraikiz, 2016. urtean landu zen eta 2019. urtera arte indarrean egongo den Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Berdintasunerako 2017-2019ko plangintzaren* plangintza, jarraipena eta urteko ebaluazioa egin dira 2018an.

2017-2019ko Plangintza Aurre! Foru Plan berrian, *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plan* berrian eta *Berdintasunerako II. Foru Planaren* egokitzean oinarrituta landu zen, legegintzaldi hau amaitu arte berdintasunerako plangintza bakarra egituratzeko.

2018an, halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiak arlo eta programa guztiak kudeatzeko garatutako tresna orokor berriak baliatu dira: EBA (programaziorako) eta MIDENET (jarraipenerako).

Berdintasunerako Organoak idatzitako urteko txostenak eskuragarri daudela kontuan hartuta, laburpen txiki bat baino ez dugu emango, egindako lanaren berri emateko eta lortutako emaitzen ikuspegi orokor bat eskaintzeko.

4.1.1.- 2018ko berdintasunerako programazioa; jarraipena eta ebaluazioa.

Ekintzak: 2018. urtean, indarrean dauden hiru foru-planetan bildutako 136 ekintzetatik, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 120 ekintza programatu dira guztira. Hau da, plan horietan jasotako ekintzen % 88 programatu dira 2018an.

Programatutako ekintza horietatik, 107 ekintza egin dira, hau da, programatutako ekintzen % 89. Eta egindako ekintza horietatik, 48 amaitu dira, eta gainerako 59ak 2019an ere garatuko dira.

Foru Planak: 2018an, honako ekintza hauek programatu eta landu ziren *Berdintasunerako 2017-2019ko Foru Plangintza* osatzen duten hiru foru-planetako bakoitzean:

- *Aurre! Foru Plana:* planaren 69 ekintzetatik, 56 programatu dira. Horietatik, 48 landu dira (programatutakoen % 85), eta, beraz, kopuruak igoera handia izan du, aurreko urteko 35



ekintzekin alderatuta. Landutako 48 ekintzetatik, 26 amaitu dira (19 2017an), eta beste 22 datorren urtean ere garatuko dira (16 2017an).

- *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana*: planaren 34 ekintzetatik, 31,5 programatu dira. Horietatik, 30,5 ekintza landu dira (programatutakoen % 97), eta, beraz, kopuruak igoera handia izan du, aurreko urtean landutako 5 ekintzekin alderatuta. Landutako 30,5 ekintzetatik, 12 amaitu dira (5 2017an), eta beste 19 datorren urtean ere garatuko dira (bat ere ez 2017an).
- *Esparru Orokorra (Gobernu Ona eta Emakumeen ahalduntzea)*: esparru horri lotutako 33 ekintza programatu ziren. Ekintza horiek ia foru-departamentu guztiak hartu dituzte eraginpean. Ekintza horietatik, eta maila desberdinean departamentuaren arabera, 28 ekintza landu dira (programatutakoen % 85), eta gainerako bosten jarraipenari buruzko daturik ez da bildu. Landutako 28 ekintzetatik, 10 amaitu dira, eta gainerako 18ak 2019an ere garatuko dira.

4.2.- ORDEZKARITZA ETA PARTE-HARTZE OREKATUA FORU ALDUNDIKO ESPARRU ETA MAILA GUZTIETAKO LANTALDEETAN.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 artikuluari jarraikiz, lau pertsonak baino gehiagok parte hartzen dutenean eta bi sexuek gutxienez % 40ko ordezkariak dutenean ulertzen da ordezkariak eta parte-hartze orekatua dagoela.

Ordezkaritza orekatu horrek iraun egin du 2018an, bai kide anitzeko zuzendaritzako organoetan, bai epaimahaietan –edo antzeko organoetan– eta 2018an langileak hautatzeko egindako prozesuetarako osatutako hautaketa-mahaietan. Adibidez, prozesu horietarako osatutako 34 hautaketa-mahaietatik (3 epaimahai eta 31 ebaluazio-batzorde), 32k emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dute (bi ebaluazio-batzordek soilik ez dute ordezkariak orekatu izan).

4.3.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ALDEKO INFORMAZIOAREN PRODUKZIO ETA KUDEAKETA ETA BARNE- ZEIN KANPO-KOMUNIKAZIOA.

Foru Arauaren betetzea barne-komunikazio zein kanpo-komunikazio guztien produkzioan islatu da; izan ere:

- Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egiten da.
- Emakumeen irudi anakroniko eta estereotipatuaren transmisioa saihestu eta prebenitzen da, baita sexu bat bestearen gainetik edo azpitik dagoen ideian oinarritutako adierazpen ororena ere.
- Erakundeen komunikazioetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta baliokidea sustatzen da.
- Indarkeria matxistaren aurrean gizarte- eta erakunde-arbuioa areagotu eta sustatu egiten da bidea ematen duten komunikazio guztietan.



Hala ere, oraindik ez da landu 2/2015 Foru Arauak ezartzen duen **berdintasunerako berariazko barne-araudirik** azaldutako guztia islatu eta bermatzeko. Edonola ere, 2017an landutako foru-komunikazioaren liburu zuria zabaldu eta aplikatu da 2018an, eta hizkuntzaren erabilera ez-sexistari buruzko atal bat txertatu da bertan.

Halaber, sentsibilizazio-saio bat egin da Gipuzkoako Foru Aldundiko kanpo-komunikazioko langileekin. Saio horrek lau orduko iraupena izan zuen, eta *Berdintasunerako Organoak* egin zuen, Aldundiko komunikazio-taldeak eskatuta, Aldundiaren kanpo-komunikazioan berdintasuna txertatzea ahalbidetuko zuten estrategiak aztertzeko eta baliabideak ezagutzeko helburuarekin. Prestakuntza-saioan, honako gai hauek landu ziren:

- Hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta Foru Aldundiak horretarako ezarritako jarraibideak.
- Indarkeria matxistari lotutako terminologia. Foru Aldundiaren esparru kontzeptuala eta terminologikoa.
- Lan- eta komunikazio-esparru bakoitzerako berariazko hizkuntzen gidak: euskara, hezkuntza, osasuna, kirola, kultura, enpresak eta lan-esparrua, irudiak eta publizitatea.

Foru Arauak esparru horretan ezartzen duenez, “herritarrek eskubidea izango dute Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzeko komunikazioan, informazioan eta publizitatean emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa bete dadila, eta horretarako **erregelamendu bidez garatuko den bide bat** izango dute”. Erregelamendu-bide hori garatu gabe dago oraindik.

Bestalde, 2018an, Foru Aldundiaren kontratu eta diru-laguntzetan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista ezartzeko berdintasun-klausulak sartzen jarraitu da, Foru Arauak “Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru-sektore publikoa osatzen duten entitateek eskainitako **kontratuen esleipendun diren pertsona fisiko eta juridikoei**” dagokienez eskatzen duena betetzeko.

4.3.1.- Webguneak eta sare sozialak:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren webguneari dagokionez, aipatu beharra dago emakumeen eta gizonen berdintasunari berariaz lotutako albisteek eta komunikazioek gora egin dutela atal honetan.

2018. urtean, #OrainBerdintasuna etiketa eta “Berdintasuna orain” webgunea erabili dira emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko informazioa barneko zein kanpoko komunikazioen bidez zabaltzeko.

Ondoren, adibide gisa, 2018an etiketa eta webgune horietan bildutako titular eta gai batzuk laburbilduko ditugu. Aipamenak alderantzizko ordena kronologikoan jasota daude, hau da, urte amaierakoekin hasita:

- Gehiago gutxiago denean: Joan den azaroaren 25eko Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunaren harira, Gipuzkoako Foru Aldundiak garbian ipini du 2018ko “argazki finkoa”.
- Aldundiak berretsi egin du indarkeria matxistaren aurrean agertu beharreko zero tolerantziarekin duen konpromisoa. Erakundeetako arduradunek eta herritarrek emakumeen askatasuna mugatzen edo haien eskubideak urratzen dituen indarkeria mota ororen gaitzespenik tinkoena agertu dute kontzentrazio horren bidez, eta jarrera edo portaera matxista ororen aurrean zero tolerantzia agertzeko eskatu dute. Kontzentrazioa baliagarria izan da, berriz ere, gizon eta emakumeentzako berdintasunezko eta bidezko gizarte bat eraikitzeko apustua eta konpromisoa berresteko.



- “Protokoloarekin, Gipuzkoak aurrerapausoa eman du gaitzespenaren eta erreparazioaren kulturean”: Otsailetik azarora bitartean, eraso sexisten aurreko erantzun publiko instituzionala 23 aldiz aktibatu du Berdintasunerako Organoak.
- Langile eta enpresei zuzendutako berdintasun-ikastaro pilotua: proba esperimentala Errenterian eta Bergaran egingo da, eta lurraldeko enpresa nabarmenek parte hartuko dute.
- Berdintasunaren aldeko apustuari eusteko deia egin du Kathrine Switzer-ek: Katherin Switzer, dortsal batekin maratoi batean parte hartu zuen lehen emakumea eta emakumeen eskubideen aldeko aktibista, izan da gaur goizean Gipuzkoako Foru Aldundian. Foru-ordezkariekin eta enpresa-, kirol- eta politika-arloko Gipuzkoako zenbait emakumerekin batera, lan-saio batean hartu du parte.
- Aldundiak gaitzespen “gogorrena” azaldu du Aste Nagusian erasotako gazte urnietarraren hilketaren aurka: babesa adierazi die foru-erakundeak hildakoen familiari eta gertukoei, eta indarkeria matxistaren logikaren barruan kokatu du eraso.
- Kontziliazio erantzunkidea, etorkizuneko erronka: Emakumea bazara, gutxiago kobratzen duzu eta lan gehiago egiten duzu. Presaz jokatzeko ez badugu, hurrengo belaunaldiarentzat ere hala izango da.
- Gure belaunaldiaren egitekoa da kontziliazio erantzunkidearen erronkari heltzea: Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta, Berdintasuna eta Kontziliazioa topaketak gaur Tabakaleran lurralde osoko 150 enpresa eta erakunde baino gehiagotik etorritako 250 ordezkaritari batu ditu.
- Abian da Erantzunkide sarea: Gaur goizean Aldundiaren “Etorkizuna Eraikiz Gunean” egin den lehen topaketa batekin abiarazi da kontziliazio erantzunkidearen aldeko Gipuzkoako enpresen sarea. *Erantzunkide* sarea hogei enpresa eta erakunde ingururekin ekin dio ibilbideari. Aurrerantzean ere kide berriak batu ahal izango dira sarera, emakumeen eta gizonen berdintasuna eta kontziliazio erantzunkidea euren erakundeetan bultzatzeko nahia dutenak.
- “Onartezina da emakumeek oraindik ere iaiez askatasunez eta seguru ezin gozatzea”: Gipuzkoako Foru Aldundiak joan den asteburuan Donostian Aste Nagusiaren barruan izandako gertaera sexistak salatzeke Udalak gaur egingo duen elkarretaratze-deialdiarekin bat egiten du.
- 380 enpresak adierazi dute interesa, “Etorkizuna Eraikitze” kontziliazioko programa pilotuetan: “Etorkizuna Eraikiz”, denon artean Gipuzkoaren etorkizuna eraikitzea xede duen foru-ekimenak kontziliazio eta berdintasunaren arloko 20 esperientzia pilotu jarri ditu jada martxan lurraldeko enpresetan, eta beste hamar jarriko ditu aurki. Guztira, esperimentazio-prozesuetan 2.500 pertsona ari dira parte hartzen eta, gainera, lurraldeko beste 380 enpresaren interesa piztu du. Azken hauek prozesua gertutik jarraitzea eskatu dute.
- Indarkeria sexistaren aurkako fronte komuna: Indarkeria sexistaren aurkako erantzun publiko instituzionalerako udalerrientzako lehen protokoloa aurkeztu da gaur. Protokolo honek ekintza-esparrua eta erantzun harmonizatu eta estandarizatu komuna eskaintzen du Gipuzkoa osorako, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako batasuna adierazteko eta berdintasunaren aldeko irudi bateratua emateko helburua duena.
- Aldundiak dei egiten dio gizarteari eraso sexistak gaitzesten jarrai dezan: Gipuzkoako Foru Aldundiak gogor salatu du atzo igandean Lasarte-Orian gertatu zen eraso sexista, eta erakundearen babes guztia erakusten die biktimari eta haren gertukoei.



- Aldundiak konpromiso kolektiborako deia egiten du, emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko: Gipuzkoako Foru Aldundiak gogor arbuiatu du Altzan gertatu den eraso sexista.
- Aldundiak bat egin du Tolosako eraso sexistaren aurkako elkarretaratzearekin: Herritarrei dei egin die festetan emakumeen askatasuna eta segurtasuna bermatzeko konpromisoa har dezaten.
- Landa-ingurune jasangarri eta orekatu baten erronka: Landa-eremuaren azterketak garbi uzten du badirela genero-desberdintasunak, zeinak, zuzendu ezean, egituraren oinarrii eta etorkizunean garatzeko gaitasunari eragingo baitie. Horiek zuzendu egin behar ditugu beraz, nahitaez.
- Berdintasuna, landa-eremuaren etorkizunerako aukera berriak atzemateko bidea: Berdintasuna landa-eremuaren etorkizuna eta ongizatea bermatzeko klabeetako bat dela uste du Gipuzkoako Foru Aldundiak.
- Kontziliazio erantzunkideko lehen saiakuntza-laborategia Beasainen: “HerriLab” izeneko ekimenaren bitartez, *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planaren* esperimentazio-probalekua izango da Beasain. Herriko eragileak eta biztanleak inplikatur, elkarlanean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna era esanguratsu eta iraunkorrean sustatzeko ekintzak diseinatu, probatu eta ezarriko dira proiektu pilotu honi esker.
- Hondarribiko eraso matxista gaitzetsi du Aldundiak: Aldundiak modu irmoan salatu du joan den martxoaren 8an, osteguna, Hondarribian gertatutako eraso sexista, eta bat egin du hori salatzeke elkarretaratzearekin.
- Izan gaitzeen erdiak: Erdiak gara, izan gaitzeen erdiak. Lema hori hautatu du Aldundiak martxoaren 8 berezi honetarako. Izan ere, emakumeek, gizarte honen erdiak izanik ere, ez gara erdiak. Errealitatea egoskorra da, eta datuek etengabe jotzen gaituzte, desoreka sakonaren erakusgarri. Gizartearen erdiak benetan izan behar du gizartearen erdia.
- Martxoaren 8ko erakunde-adierazpena: Martxoaren 8an Emakumeen Eguna ospatzen da mundu osoan. Ospakizun hori beharrezkoa da oraindik ere, emakumeek emakume izate hutsagatik egunez egun eta bizitza osoan zehar jasaten dituzten desberdintasunak agerian jartzeko.
- Emakumeen eta gizonen arteko desoreka datuetan: Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira abiarazi duen “50-50” kanpaina aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Aurten ahalegin berezia egingo da emakumeak eta gizonak banatzen dituzten desberdintasunak agerian uzteko eta, horretarako, datu argigarri eta deigarrietan oinarritutako kanpaina bat egingo da.
- Udalerrri txikietara helduko da Berdinbidean: 1.000 biztanletik beherako udalerrientzat orientazio-zerbitzu berria eskainiko du Aldundiak. Izan ere, Gipuzkoako 69 herri txiki horietatik 32 direlako mila biztanle baino gutxiago dituztenak.
- Aldundiak adituen foro bat abiarazi du indarkeria sexistaren aurkako politikak zehazteko: Foroa bi urtetan garatuko da, eta lehen topaketako gonbidatuak Soledad Murillo, Socorro Álvarez, Cristina Fabrè eta Miren Ortubay izan dira. Ekimena *Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Aurre! Foru Planean* txertatuta dago, eta 2018an eta 2019an egingo diren zazpi saiotan garatuko da.



4.4.- GENERO-IKUSPEGIA TXERTATUKO DUTEN FORU-AZTERLANAK ETA FORU-ESTADISTIKAK LANTZEA.

2018. urtean, **sexuaren arabera bereizitako datuak** bildu dira, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuek egindako **11 ikerketetan** emakumeen egoera eta gizonena alderatu ahal izateko.

Halaber, **generoari lotutako aldagai** batzuk sartu dira **ikerketan horietan guztietan**. Hala nola: soldata-arraila, ondarearen titulartasuna, jarduera ekonomikoaren titulartasuna, norberaren edo besteren konturako lana eta kontziliazio erantzunkidea.

4.4.1.- *Berdintasunerako Foru Plangintzaren* adierazleak Emaitzetara Bideratutako Aurrekontuetan (EBA)

2018an, *Berdintasunerako foru-plangintzan* jasotako helburu bakoitzari esleitutako adierazleak eguneratu dira. Helburu bakoitzak EBA aplikazioan txertatuta dauden hainbat adierazle ditu esleituta. Era horretan, helburu bakoitzaren adierazleak aurrekontu-programa bakoitzari dagozkion ekintzetako edozein aukeratzean bistaraten dira.

4.4.2.- Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko berriazko azterlanak

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspegian oinarritutako azterlanei dagokienez, 2018an egindako honako hauek azpimarra daitezke:

- “KONTZILIAZIOAREN ETA BERDINTASUNAREN SUSTAPENA GIPUZKOAKO FAMILIETAN: DEBAGOIENAKO ANALISIA”, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) *Ekonomia Aplikatua I Saileko* M^a Luz de la Cal Barredok, Yolanda Jubeto Ruizek, Mertxe Larrañaga Sarriegik eta Elena Martinez Tolak *Diputatu Nagusiaren Alorrerako* egina, “Etorkizuna Eraikiz” programaren esparruan.
- “GIPUZKOAKO PROSTITUZIOARI BURUZKO TXOSTENA”; 2018ko irailetik abendura bitarte egindako lan baten emaitza da. Lan hori Arrats Elkartearen “Aukera” programako lantaldeak 2018ko urtarriletik abuztura bitarte jasotako datuekin egin da (programa horrek Gipuzkoako Lurralde Historikoan prostituzioan diharduten pertsonekin lan egiten du 1998. urteaz geroztik).
- “EMAKUMEEN ETXEEN ZEREGINA INDARKERIA MATXISTARI DAGOKIONEZ. DIAGNOSTIKOA ETA SENDOTZEKO PROPOSAMENAK”; EDE Fundazioak *Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Aurre! Foru Planaren* esparruan egindako lana da.
- “EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO HELBURUA DUEN PRESTAKUNTZARI BURUZKO AZTERKETA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN DIRUZ LAGUNTZEN DUENA”, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren JAKITUN* programaren bigarren lan-ildoaren barruan.



4.5.- KONTRATU PUBLIKOETAN BERDINTASUNARI LOTUTAKO KLAUSULAK TXERTATZEA.

2018an egindako 282 kontratuetatik, **241etan berdintasunerako klausulak txertatu dira** deialdiaren, esleipenaren eta betearazpenaren hainbat fase eta alderditan. Hau da, **urtean egindako kontratuen % 85etan**. Ehuneko hori 2017. urtekoaren antzekoa da (urte horretan, egindako 193 kontratuen % 88tan txertatu ziren horrelako klausulak), baina egindako kontratuen kopurua nabarmen handiagoa izan da. Hortaz, foru-departamentuek egindako kontratuen kopurua edozein izanik ere, kontratu horietan berdintasunerako klausulak era orokor eta sistematizatuan txertatzen direla egiaztatzen da urtero.

2018an erabilitako klausulei dagokienez, azpimarratu beharra dago **233 kontratutan** txertatu direla berdintasun-klausulak **kontratu betetzeko berariazko baldintzetan**; beraz, kontratuen % 97tan txertatu dira berdintasun-klausulak. Horrek esan nahi du ehunekoak igoera handia izan duela 2015-2016 aldiarekin alderatuta. Izan ere, aldi horretan, kontratuen % 80tan txertatu ziren berdintasun-klausulak kontratu betetzeko baldintzetan.

Gainera:

- 20 kontratutan, berdintasun-klausulak txertatu dira esleipen-irizpideetan.
- 9 kontratutan, kontratuaren xedean.
- 3 kontratutan, zehaztaperen teknikoetan.
- 2 kontratutan, kualifikazio tekniko eta profesionalean.

4.6.- DIRU-LAGUNTZETAN BERDINTASUN-KLAUSULAK TXERTATZEA.

2018. urtean, 1.360 diru-laguntza eman dira, eta, haietatik, **579 diru-laguntzetan txertatu dira berdintasun-klausulak**. Horrek esan nahi du **guztien % 43tan** txertatu direla. Hau da, ia erdietan. Horrek agerian uzten du esparru horretan oraindik ez dela lortu kontratuetan ikusitako orokortzea eta sistematizazioa. Hori lortzea datozen urteetarako geratuko den erronka da.

Klausulak honako hauetan txertatu dira batez ere:

- Diru-laguntza lortu ahal izateko baldintzetan (402 diru-laguntza).
- Balorazio-irizpideetan (399 diru-laguntza).
- Diruz lagundutako proiektuak egikaritzeko baldintzetan (180 diru-laguntza).

Hitzarmenei dagokienez, 2018an 190 egin dira. Horietatik, **36 hitzarmenetan txertatu dira berdintasun-klausulak**. Hau da, **urteko guztizkoaren % 19tan**. Horrek esan nahi du beherakada txiki bat gertatu dela 2017. urtearekin (% 26) eta 2015-2016 aldiarekin (% 33) alderatuta. 2017an detektatu zen beheranzko joera hori zuzentzea datozen urteetarako geratuko den erronka da.

Azkenik, **2018an emandako 10 beketako 5etan txertatu dira berdintasun-klausulak** esleipen-irizpideetan eta beka jaso duen lana egiteko prozesuan.



4.7.- ARAU-GARAPENA: GENEROAK FORU-ARAUEN AURREPROIEKTUETAN, IZAERA OROKORREKO XEDAPENEN PROIEKTUETAN ETA IZAERA SEKTORIALEKO FORU-PLAN ESTRATEGIKOETAN DUEN ERAGINARI BURUZKO ALDEZ AURREKO EBALUAZIO-TXOSTENA.

2018an, 2/2015 Foru Arauan ezarritakoari jarraikiz, foru-departamentuek landutako Foru Arauen aurreproiektuekin eta izaera orokorreko xedapenen proiektuekin batera genero-eraginaren aldez aurreko bidezko ebaluazio-txostena aurkeztu da lantzeko eta izapidetzeko prozesuan. Bestalde, *Berdintasunerako Organoak* departamentu sustatzaileek genero-eraginari buruz egindako aldez aurreko ebaluazio-txostenei erantzuteko Foru Arauak esleitzen dizkion aginduzko egiaztapen-txostenak landu ditu.

4.7.1.- 2018an egindako genero-eraginaren aldez aurreko ebaluazio-txostenak

2018an, departamentuek **genero-eraginaren aldez aurreko 37 ebaluazio-txosten** idatzi zituzten, eta *Berdintasunerako Organoak* haien aginduzko egiaztapen-txostenak egin zituen. Zifra hori 2017koa (24 txosten), 2016koa (22 txosten) eta 2015ekoa (21 txosten) baino handiagoa da.

37 kasu horietatik, 36tan bidezkotzat hartu zen genero-eragina eta, beraz, haren aldez aurreko ebaluazioa.

2018an genero-eraginaren aldez aurreko 37 ebaluazio-txostenak egin zituzten **departamentuak** honako hauek dira:

- *Ogasun eta Finantza Departamentua*: 18 txosten.
- *Ekonomia Sustapena, Landa Garapena eta Lurralde Oreko Departamentua*: 6 txosten.
- *Kultura, Turismo, Gazteria eta Kiroleko Departamentua*: 4 txosten.
- *Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentua*: 3 txosten.
- *Gobernantza Departamentua, Modernizazioa*: 3 txosten.
- *Gizarte Politikako Departamentua*: Txosten 1.
- *Diputatu Nagusiaren Alorra, Euskara*: txosten 1.
- *Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako Departamentua*: txosten 1.

Ikuspuntu kualitatibo batetik, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira:

- Genero-eraginaren aldez aurreko ebaluazio-txostenetako 5 Gipuzkoako Foru Aldundiaren honako funtsezko plan eta estrategia hauen ingurukoak izan dira: Klima Aldaketa 2050; Euskara Plana; Gipuzkoako Hondakinen Plana; Prebentzio, Suteen Itzalketa eta Salbamendu Plana; eta Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa.
- 10 kasutan, *Berdintasunerako Organoak* iradokitako eta arauen aurreproiektuak aldatzera eta hobetzera bideratutako neurri zuzentzaile batzuk txertatu dira aurkeztutako proiektuetan. Arestian adierazitako bost plan edo estrategietako lautan gertatu da hori: Klima Aldaketa 2050; Euskara Plana; Gipuzkoako Hondakinen Plana; Prebentzio, Suteen Itzalketa eta Salbamendu Plana. Halaber, lau foru-arautan eta bi foru-dekretutan egin da hori.
- Azkenik, hizkuntzaren erabilera ez-sexista aplikatu da egindako genero-eraginaren aldez aurreko 37 ebaluazio-txostenetan.



4.7.2.- Foru Araua 2015ean onartu zenetik egindako txosten guztien kanpoko ebaluazioa

2018. urtean, Foru Araua 2015ean onartu zenetik Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuek egindako genero-eraginaren alde aurreko ebaluazio-prozesu guztien kanpoko ebaluazioa egin da.

Ebaluazio hori aitzindaria izan da administrazio publikoetan, berritasunagatik eta norainokoagatik. Bertan, foru-departamentu guztien prozesu guztiak aztertu dira. Kasu bakoitzean, honako elementu hauek alderatu dira:

- Departamentuaren hasierako edo jatorrizko arau-proiektua.
- Departamentu horrek proiekturako egindako genero-eraginaren alde aurreko ebaluazio-txostena.
- *Berdintasunerako Organoak* departamentuaren alde aurreko ebaluazio-txostenari erantzuteko egindako aginduzko egiaztapen-txostena.
- Onartutako eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldizkari ofizialean behin betiko argitaratutako araua.

Prozesuaren urrats guztiei buruzko konparazio-azterketa horri esker, prozesu horren hobekuntza-esparruak identifikatu ahal izan dira. Identifikatutako hobekuntza-esparru horietan jardungo da 2019an.

4.8.- AURREKONTUEN PLANGINTZA ETA KUDEAKETA: GENERO-ERAGINA BERRIKUSI, AZTERTU ETA EBALUATZEA, URTEKO AURREKONTUA ONARTU AURRETIK ETA AURREKONTU-EKITALDIA AMAITU ONDOREN.

2018an, foru-departamentu guztiek erabili dute “Emaitzetara Bideratutako Aurrekontuak (EBA)” aplikazioa, aurrekontuen plangintza eta kudeaketa egiteko eta, halaber, zeharkako foru-politikak (Gipuzkoako Foru Aldundiaren berdintasun-politikak barne) kontuan hartuta egiteko. Horretarako, aplikazio informatiko horrek *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Foru Plangintzari* berariaz lotutako erlantz bat dauka, eta, haren bidez, aurrekontu-programetako ekintzak berdintasunerako urteko programazioaren helburu, adierazle eta ekintzekin lotu daitezke. Horren bidez, aurrekontuen alde aurreko eta ondorengo balorazioa egin ahal izan da berdintasunaren ikuspuntutik, baita emakumeen eta gizonen berdintasunerako programazioaren jarraipena ere, onartutako aurrekontu-programak egikaritzeko fasean. Era horretan, berdintasunaren zeharkakotasuna sustatu da Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontu-ekintza guztietan.

Bestalde, aplikazio eta tresna horietan genero-ikuspegia behar bezala aplikatu ahal izateko, horren inguruko prestakuntza eta lana egin dute berriazko talde batzuek 2018an. Ildo horretan, “Aurrekontua lantzeko jarraibideen” 64. eta 65. orrialdeetan, genero-berdintasunerako foru-politikekiko eta foru-planekiko erlazioa ezartzen duen 3. blokea (“Genero-berdintasuna”) osatzeko orientabideak jasota daude.



4.9.- LANGILEEN KUDEAKETA: SARBIDEA ETA HAUTAKETA, SUSTAPENA, PRESTAKUNTZA, ORDAINSARIAK, LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA, KONTZILIAZIOA ETA ERANTZUNKIDETASUNA.

2018an arlo honetan garatutako atalen artean, honako hauek azpimarra daitezke:

4.9.1.- Sarbidea eta hautaketa.

2018. urtean, 108 hautaketa-prozesu egin dira guztira: lan-eskaintza publiko bat, sei lan-poltsa (lehiaketa bat, oposizio-lehiaketa bat eta Lanbide bidezko lau oposizio), aldi baterako hornikuntzako 92 prozesu eta behin betiko hornikuntzako (izendapen askeko) 9 prozesu. Berdintasunaren ikuspuntutik:

- Prozesu horietarako osatutako 34 hautaketa-mahaietatik (3 epaimahai eta 31 ebaluazio-batzorde), 32 mahaiak emakumeen eta gizonen ordezkari izan dute (bi ebaluazio-batzordek soilik ez dute izan ordezkari orekaturik).
- Hiru prozesutan, emakumeen eta gizonen berdintasunari lotutako gaiak txertatu dira gaitzerrendetan.
- Prozesu batean, emakumeen ordezkari bultzatzeko klausula bat txertatu da, eremu horretan emakumeen ordezkari % 40 baino txikiagoa baita.
- Zazpi prozesutan, genero-ikuspegia txertatu da oinarri orokorretan. (Adibidez, azterketa egiteko dei bakarraren kasuan, azterketa egiteko beste aukera bat gaitzen da ezohiko zirkunstantzietarako, hala nola erditzeko).

4.9.2.- JAKITUN prestakuntza-programa

2018. urtean, JAKITUN prestakuntza-programa edo prestakuntza-esparrua jarri da abian. Programa horren barruan, berdintasunaren arloko prestakuntzari lotutako bi azterlan eta bi esperientzia pilotu egin dira, Gipuzkoako Foru Aldundian zein lurralde osoan.

2018an berdintasunaren arloko prestakuntzaren plangintzari lotuta egindako **BI AZTERLANAK** honako hauek izan dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko langileei zuzendutako berdintasun-arloko urte anitzeko prestakuntza-plan bat. Plan horrek berdintasunari eta foru-politika publikoei lotutako prestakuntza-ibilbide osatu eta mailakako bat eskainiko die langile guztiei.
- Gipuzkoan berdintasuna bultzatzeko egiten den eta horretarako Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzak jasotzen dituen prestakuntzaren azterketa.

2018an lurraldean egindako **BI ESPERIENTZIA PILOTUAK** honako hauek dira:

- Urola Garaiko eta Donostiako Emakumeen Etxeetan egindako oinarrizko prestakuntza-ibilbidea. Esperientzia horretan, 53 emakumek parte hartu dute guztira (24 Urola Garaian eta 19 Donostian).
- Prestakuntza horretan, Gipuzkoako 18 enpresako 31 langilek parte hartu dute (25 emakumek eta 6 gizonek).



4.9.3.- Berdintasun-arloko prestakuntza.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2018an antolatutako **prestakuntzaren guztizko datuak** honako hauek dira:

- Prestakuntza-orduak, guztira: 4.671 ordu, 300 ikastaro edo prestakuntza-saiotan banatuak.
- Prestakuntzako parte-hartzaileak 2018an, guztira: 2.297 pertsona; 1.418 emakume (guztien % 62) eta 879 gizon (% 38).
2018an, 1.853 emakume (guztien % 61) eta 1.204 gizon (% 39) izan ziren guztira.
2016an, 997 emakume (guztien % 65) eta 539 gizon (% 35) izan ziren guztira.
2015an, berriz, 1.022 emakume (guztien % 67) eta 507 gizon (% 33) izan ziren guztira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2018an emakumeen eta gizonen **berdintasunaren** arloan antolatutako **prestakuntzaren datuak** honako hauek izan ziren:

- 108 ordu berdintasunaren arloko prestakuntzan, 78 ordu barneko prestakuntza-planean eta 30 ordu kanpoko prestakuntzan (prestakuntza-ordu guztien % 2,3), guztiak 12 ikastaro edo prestakuntza-saiotan (barneko 5 eta kanpoko 7) banatuak (ikastaro guztien % 4).
2017an, 117 ordu izan ziren (guztien % 2,3), 8 ikastarotan banatuak (guztien % 2,1).
2016an, 53 ordu izan ziren (guztien % 3,6), 3 ikastarotan banatuak (guztien % 2,5).
2015ean, berriz, 126 ordu izan ziren, 3 ikastarotan banatuak (guztien % 3,8).
- 2018an, 98 pertsonak hartu dute parte berdintasun-arloko prestakuntza-ikastaroetan (prestakuntza osoko parte-hartzaile guztien % 4,2). Haietatik, 88 emakumeak ziren (guztien % 90), eta 10 gizonak (guztien % 10).
2017an, berriz, 77 pertsona izan ziren (prestakuntza osoko parte-hartzaile guztien % 2,5). Haietatik, 69 emakumeak ziren (guztien % 90), eta 8 gizonak (% 10).
2016an, berriz, 27 pertsona izan ziren (prestakuntza osoko parte-hartzaile guztien % 1,8). Haietatik, 24 emakumeak ziren (guztien % 89), eta 3 gizonak (% 11).
2015ean, berriz, 44 pertsonak hartu zuten parte (prestakuntza osoko parte-hartzaile guztien % 2,9). Haietatik, 38 emakumeak ziren (guztien % 86), eta 6 gizonak (% 14).

Ikus daitekeenez, **2018ko datuek honako alderdi hauek utzi dituzte agerian:**

- Foru-prestakuntzan parte hartu duten pertsona guztietatik emakumeek izan duten ehuneko aurreko urteetako oso antzekoa izan da: % 62 2018an, % 61 2017an, % 65 2016an eta % 67 2015ean.
- 2018an, berdintasun-arloko berariazko prestakuntzara zuzendutako orduen kopuruak (108 ordu) behera egin du zertxobait, 2017. urtearekin alderatuta (117 ordu urte horretan), baina 2016ko kopuruaren (53 ordu) bikoitza eta 2015ekoaren (126 ordu) antzekoa izan da.
- Ehunekoei dagokienez, berdintasun-arloko prestakuntza-orduek prestakuntza-orduen guztizkoan duten ehunekoak gora egin du nabarmen, eta ia bikoitzera iritsi da. Nolanahi ere, azken urteetako ehunekorik handiena izan da: % 4,2 2018an, % 2,3 2017, % 3,6 2016an eta % 3,8 2015ean.
- Berdintasun-arloko berariazko prestakuntzako ikastaro edo saioen guztizko kopuruak nabarmen egin du gora 2018an (12 ikastaro). Izan ere, % 50eko igoera izan du aurreko



urtearekin alderatuta, eta azken urteotako kopururik handiena izan da (8 ikastaro 2017an, 3 ikastaro 2016an eta 3 ikastaro 2015ean).

- Ehunekoei dagokienez, nabarmen egin du gora berdintasun-arloko prestakuntza-ikastaroek prestakuntza-ikastaroen guztizkoan duten ehunekoa, aurreko urteekin alderatuta: % 4 2018an, % 2,1 2017an, % 2,5 2016an eta % 3,8 2015ean.
- 2018an, berdintasunean prestatutako pertsonen guztizko kopuruak (98 pertsona) nabarmen egin du gora, eta azken urteotako parte-hartzerik handiena izan da (77 pertsona 2017an, 27 pertsona 2016an eta 44 pertsona 2015ean).
- Ehunekoei dagokienez, 2018an nabarmen egin du gora berdintasunean berariaz prestatutako pertsonen prestatutako pertsonen guztizkoan duten ehunekoak (% 4,2), eta azken urteotako ehunekorik handiena izan da (% 2,5 2017an, % 1,8 2016an eta % 2,9 2015ean).
- 2018an berdintasun-arloko prestakuntza jaso duten emakumeen guztizko kopuruak (88 emakume) gora egin du nabarmen, eta azken urteotako kopururik handiena izan da (69 emakume 2017an, 24 emakume 2016an eta 38 emakume 2015ean).
- Ehunekoei dagokienez, emakumeek berdintasun-arloko berariazko prestakuntza jaso duten pertsonen guztizkoan duten ehunekoa aurreko urteetako antzekoa izan da: % 90 2018an, % 90 2017, % 89 2016an eta % 86 2015ean. Beraz, berdintasun-arloko berariazko prestakuntzari dagokionez, emakumeen eta gizonen arteko arrailak ez du behera egin.

4.9.4.- Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana.

2018an, *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planeko* “Administrazio publiko erantzunkidea” lan-ildoan, honako ekintza hauek jarri dira abian, besteak beste:

- Kontziliazio erantzunkideari buruzko ikerketa (beka).
- Udaleko kargudun eta arduradun politikoei zuzendutako prestakuntza.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Konpromisoen Gutuna batera lantzen hastea.
- Aldundiaren barneko proiektuak (telelana).
- “Erantzunkide” Enpresa Sarearen sorkuntza eta garapena.
- Herrilab proiektua Beasainen.

Gipuzkoako Foru Aldundian, TELELANA lan-aukera ez-presentzial bat da; enplegatuek beren bizilekutik edota ohiko lantokiko lan presentzialaren tokiaz bestelako leku batetik betetzen dute beren lanpostuko eduki funtzionalaren zati bat. Informazioaren teknologiek aukera ematen duten heinean balia daiteke aukera hori, betiere laneko arriskuen prebentzioaren, gizarte-segurantzaren eta pribatutasunaren eta datuen babesaren arloetan eskatutako baldintzak betetzen badira. Telelanak onura nabarmenak dakartza adingabeak beren kargura, zainketak behar dituzten adinekoak edota desgaitasuna edo gaixotasun larri bat duten senideak dituzten pertsonentzat, bizilekuan lanaldi osoak egiteak erraztu egiten baitu bizitza pertsonalaren, familia-bizitzaren eta lan-bizitzaren kontziliazioa, eta horixe da lan-modalitate horren azken helburua.

2017an, sei hilabeteko esperientzia pilotu bat egin zen (ekainetik abendura bitarte) 9 pertsonarekin (5 emakume eta 4 gizon), eta oso balorazio positiboa jaso zuen. 2018an, berriz, esperientzia horrekin jarraitu da, eta sistematizatu egin da. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiko langile publikoek lan egiteko duten sistema mistoa (modalitate presentziala zein ez-presentziala – telelanaren bidezkoa– biltzen dituen) Diputatuen Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 8ko



Erabakiaren bidez arautu zen. Lehen deialdia Gobernantzako foru-diputatuaren 2018ko maiatzaren 17ko Foru Arauaren bidez onartu zen.

Telelanerako lehen deialdi hori 2018ko ekainaren 25ean jarri zen abian, urtebeteko gehieneko iraupenarekin (hau da, 2019ko ekainaren 25erako epearekin).

- Lehen deialdi horri buruzko datuek erakusten dutenez, 24 pertsonak erabili zuten telelaneraren modalitatea. Zehazki, 17 emakumek (% 70,83k) eta 7 gizonek (% 29,16k) erabili zuten.
- Datozen urteetan datu horiek nolako bilakaera duten ikusi beharko da ondorio esanguratsuak atera ahal izateko. Oraingoan, nabaria da emakumeen proportzioa gizonena baino askoz handiagoa dela. Zerbitzuak emateko modalitate hori Gipuzkoako Foru Aldundian bizitza pertsonalaren, familia-bizitzaren eta lan-bizitzaren kontziliazioa errazteko ezarritako neurri bat dela kontuan hartuta, berriz ere egiazta daiteke “zainketen” esparrua nabarmen feminizatuta dagoela.

Bestalde, lurraldeari dagokionez, “ERANTZUNKIDE” Enpresa Sarea sortu da, berdintasunaren eta kontziliazio erantzunkidearen ikuspegia sustatzen jarraitu da lurraldean erreferentzia diren enpresetan, eta Gipuzkoako beste enpresa batzuetara transferituko diren metodologia bat eta ikaskuntza eta esperientzia batzuk sortu dira.

Halaber, eremu bakoitzeko enpresekiko lanean berdintasunaren eta kontziliazioaren ikuspegia txertatuko duten eskualdeko garapen-agentzia batzuekin egin beharreko lana hasi da.

Halaber, honako hauek egin dira:

- Enpresei eta erantzunkidetasunari buruzko topaketa bat.
- Berdintasunarekin eta kontziliazioarekin konprometituta dauden enprezentzako sari baterako deialdia egin da, eta saria eman da.
- Enpresei zuzendutako foru-laguntzetarako hainbat deialdi berrikusi dira (“Kudeabide”, “Txekintek”...), 2019. urtean genero-ikuspegia eta kontziliazio erantzunkidea txerta dezaten.

Azkenik, “HERRILAB” PROIEKTUA jarri da abian Beasainen. Proiektu horren barruan, diagnostiko partekatua egin da, esku hartzeko ildoak zehazten ari dira, eta kontziliazio erantzunkideko jardunbideen tokiko laborategi bat osatu da.

4.10.- GARATUTAKO ALDERDIETARAKO HURBILKETA KUANTITATIBOA

Ehunekoak titulu honen item bakoitzean alde zuzenetik emandako datu eta azalpenen zenbatespen kuantitatiboa dira (informazio gehiago 2.5 puntuan).

Ehunekoa Foru Arauan kapitulu bakoitzean garatzeko jasotako itemen guztizko kopuruan oinarrituta kalkulatu da. Adibidez, “*Berdintasunerako Foru Planaren plangintza, jarraipen eta ebaluazioaren*” kasuan, 2018an landutako itemen ehunekoak % 100 izan dela esan daiteke, urte horretan, “Berdintasunerako 2018ko programazioarekin”, urteko plangintza, jarraipena eta ebaluazioa egin baita.

Foru Arauaren III. Tituluari dagokionez, hurbilketa kuantitatiboak honako parametro hauek islatzen ditu:



III. TITULUA: GENERO-IKUSPEGIA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN JARDUERETAN ETA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU-SEKTORE PUBLIKOKO ENTITATEEN JARDUERETAN INTEGRATZEKO NEURRIAK	2016ko jarraipena 2015-2016an landutako itemak	2017ko jarraipena 2017an landutako itemak	2018ko jarraipena 2018an landutako itemak	2015-2018an metatua 2015-2018an landutako itemak
Jarraipen-datuak kapituluz kapitulu	%	%	%	%
<i>Berdintasunerako Foru Planaren plangintza, jarraipena eta ebaluazioa departamentuetan. Foru Arauak urteko programazio bat jasotzen du.</i> Berritasuna 2018an: 2018ko programazioa.	% 100	% 100	% 100	% 100
<i>Ordezkaritza eta parte-hartze orekatua Foru Aldundiko eremu eta maila guztietako lan-taldeetan. Foru Arauak ez du itemen guztizko kopururik edo kopuru zehatzik jasotzen.</i> Berritasuna 2018an: oso ehuneko handia langileak hautatzeko mahaletan.	% 100	% 100	% 100	% 100
<i>Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko informazioaren produkzio eta kudeaketa eta barne-zein kanpo-komunikazioa. Foru Arauak ez du itemen guztizko kopururik edo kopuru zehatzik jasotzen.</i> 2018ko berritasuna: zabalkundea webgune eta sare sozialetan.	% 100	% 100	% 100	% 100
<i>Genero-ikuspegia txertatuko duten foru-azterlanak eta foru-estatistikak lantzea. Foru Arauak ez du itemen guztizko kopururik edo kopuru zehatzik jasotzen.</i> Berritasuna 2018an: egindako ikerketetan generoari lotutako aldagaiak txertatzea.	% 100	% 100	% 100	% 100
<i>Kontratu publikoetan berdintasunari lotutako klausulak txertatzea. Foru Arauak ez du itemen guztizko kopururik edo kopuru zehatzik jasotzen.</i> Berritasuna 2018an: betearazpen-baldintzetan berdintasun-klausulak dituzten kontratuen ehunekoaren gorakada.	% 100	% 100	% 100	% 100



III. TITULUA: GENERO-IKUSPEGIA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN JARDUERETAN ETA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU-SEKTORE PUBLIKOKO ENTITATEEN JARDUERETAN INTEGRATZEKO NEURRIAK	2016ko jarraipena 2015-2016an landutako itemak	2017ko jarraipena 2017an landutako itemak	2018ko jarraipena 2018an landutako itemak	2015-2018an metatua 2015-2018an landutako itemak
Jarraipen-datuak kapituluz kapituluz	%	%	%	%
<i>Diru-laguntzetan berdintasunari lotutako klausulak txertatzea.</i> Foru Arauak ez du itemen guztizko kopururik edo kopuru zehatzik jasotzen. Berritasuna 2018an: berdintasun-klausulak diru-laguntza lortzeko baldintza eta balorazio-irizpide gehienetan.	% 100	% 100	% 100	% 100
<i>Arau-garapena. Generoak foru-arauen aurreproiektuetan eta izaera orokorreko xedapenen proiektuetan duen eraginari buruzko alde aurreko ebaluazio-txostena.</i> Foru Arauak ez du itemen guztizko kopururik edo kopuru zehatzik jasotzen. Berritasuna 2018an: prozesua orokortzea. Prozesuaren kanpoko ebaluazioa.	% 100	% 100	% 100	% 100
<i>Aurrekontuen plangintza eta kudeaketa:</i> Foru Arauak ez du itemen guztizko kopururik edo kopuru zehatzik jasotzen. Berritasuna 2018an: EBA aplikazioa orokortzea.	% 100	% 100	% 100	% 100
<i>Langileen kudeaketa.</i> Foru Arauak ez du itemen guztizko kopururik edo kopuru zehatzik jasotzen. Berritasuna 2018an: JAKITUN programa, berdintasun-arloko prestakuntza, <i>Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana</i> .	% 100	% 100	% 100	% 100

Zenbatespen kuantitatiboaren bidez, honako alderdi hauek ikus daitezke 2018ko jarraipenean:

- **Lan sistematizatu, bateratu eta orokorra** egin da Foru Arauaren Titulu honetan jasotako **arlo guztietan**, eta jarraitutasuna eman zaio aurreko urteetan egindako lanari. Arlo horietako gehienetan, urtero era jarraituan egin beharreko prozesuak direnez gero, 2018ko funtzioak bete dira, hala nola foru-departamentuen berdintasunerako programazioa, hautaketa- eta balorazio-mahaien osieran, kontratazio-espeditanteetan eta



diru-laguntzetarako deialdietan berdintasunerako klausulak txertatzea eta aurrekontuak eta araudia lantzean genero-ikuspegia txertatzea.

- **Aurrerapen esanguratsua** ikus daiteke honako alderdi hauetan: foru-departamentuen berdintasunerako urteko programazioaren garapenaren sakontzea; ordezkariak orekatua hautaketa-prozesuetarako osatutako hautaketa-mahaietan; egindako azterketa eta ikerketetan generoari lotutako zenbait aldagai txertatzea; arau-aurreproiektuen genero-eraginaren alde aurreko ebaluazio-txostenak egitea eta txosten horien kanpoko ebaluazioa egitea, Foru Araua onartu zenetik 2018ra arteko aldia kontuan hartuta; JAKITUN prestakuntza-programaren eta berdintasun-arloko berriazko prestakuntzaren abiaraztea; eta langileentzako telelanaren aukera arautzea, aurreko urteko esperientzia pilotuan oinarrituta.

4.11.- 2018AN LANDUTAKO JARDUKETARIK ESANGURATSUENAK ETA TITULU HONETAKO ITEMEI DAGOKIENEZ GERATZEN DIREN ERRONKAK

Laburbilduz, honako alderdi hauek azpimarra ditzakegu:

4.11.1.- Ekintza esanguratsuak:

→ *Berdintasunerako 2017-2019ko foru-plangintza* zehazten duten hiru planak osatzen dituzten 136 ekintzetako 120ren (hau da, ekintza guztien % 88ren) programazioa 2018rako. Halaber, departamentuek programatutako ekintza horien % 89 landu dira, hau da, 2018an *Berdintasunerako Foru Plangintza* garatzeko 107 ekintza.

→ “Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean erantzun publikoa emateko Protokolo Instituzionala” 30 alditan jarri da abian 2018an. Horri esker, erantzun, koordinazio eta koherentzia instituzionala hobetu da lurraldean detektatutako indarkeria sexistako kasuetan.

→ Udal-administrazio publikoan eraso sexistei aurrea hartzea eta horien aurrean jardutera zuzendutako protokolo bat egiteko gida bat eta lan-esparruan eraso sexistari aurrea hartzeko foru-protokolo bat landu dira.

→ *Kontzilio Erantzunkiderako Foru Planaren* esparruan eta 2017ko esperientzia pilotuaren ondoren, langileentzako telelanaren aukera arautu da Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 8ko Erabakiaren bidez, eta lehen deialdia maiatzaren 17ko Foru Aginduaren bidez onartu da.

→ JAKITUN prestakuntza-programa jarri da abian, eta, horren barruan, prestakuntza-ibilbide bat egin da Gipuzkoako Foru Aldundiko langileentzat, Gipuzkoan berdintasunaren arloan ematen den prestakuntzaren azterketa egin da eta bi esperientzia pilotu egin dira Emakumeen Etxeetan eta Hobetuzen.

→ Berdintasun-arloko berriazko prestakuntzari lotutako orduak, ikastaroak eta saioak prestakuntza-orduen guztizkoan duten ehunekoak gora egin du. Era berean, gora egin dute berdintasunean berriaz prestatutako pertsonen kopuruak eta pertsona horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren prestakuntzan parte hartu duten pertsonen guztizkoan duten ehunekoak.



4.11.2.- Geratzen diren erronkak

→ Emakumeen eta gizonen ordezkariak orekaturako klausulak kide anitzeko organo, epaimahai eta abar guztietara zabaltzea.

→ Aldundiaren kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasun-klausulak era orokor eta sistematizatuan txertatzea.

→ Gipuzkoako Foru Aldundian egindako genero-eraginaren aldeko ebaluazio-txostenen inguruan egindako kanpoko ebaluazioaren ondorioak aplikatzea. Halaber, arau-aurreproiektuak berdintasunaren ikuspuntutik hobetzera zuzendutako eta *Berdintasunerako Organoak* kasu bakoitzerako proposatutako neurri zuzentzaileak neurri handiagoan txerta daitezzen lortzea, 2018an 36 kasuetako 10etan txertatu ziren bezala.

→ Berdintasun-arloko berriazko prestakuntzan parte hartzen duten emakumeen kopuruaren eta gizonen kopuruaren arteko aldea murriztea.



5.- IV. TITULUA: BERDINTASUNAREN SUSTAPENA FORU ESKU-HARTZE ESPARRUETAN

Foru Arauak ez du epe zehatzik ezartzen IV. Tituluan landutako ezein alderditarako, eta, beraz, atal honen jarraipena egiteko, Arauan planteatutako kapituluei, *zenbatespen kuantitatiboari eta jardunik esanguratsuenen eta geratzen diren erronken laburpenari* jarraitu zaie.

Kapitulu honetan, 2/2015 Foru Arauaren IV. Tituluan bildutako kapituluen jarraipena egiten da. Titulu horretan, Foru Arauak aipatzen du foru esku-hartze esparru horiek sustatu behar dutela berdintasuna. Esparru horiek, nolahi ere, *Berdintasunerako II. Foru Planaren* sei ildo estrategikoei lotuta daude:

- Parte-hartzean oinarritutako demokraziantz.
- Zainketa duinen eta guztientzakoeren eredu sozialerantz.
- Bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzurako ekonomiarantz.
- Bizitzarako ingurune iraunkorrerantz.
- Indarkeria matxistarik gabeko bizitzarantz.

2016an *II Foru Plana Aurre! Foru Plan* berriarekin eta *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plan* berriarekin lotzeko eguneratu eta egokitu zenez gero, IV. Tituluko edukien jarraipena egokitze horren emaitzazko 2017-2019ko Berdintasunerako Foru Planqintzan oinarrituta egin da.

Foru-departamentuek *Berdintasunerako Plangintza* horretan aurreikusitako ekintzak egin dituzte 2018. urtean, eta, logikoa denez, haien jarraipen-datuak (txosten honen oinarri direnak) bat datoz plangintza horrekin. Plangintza hiru zutabe handitan oinarritu zen, hots, *Berdintasunerako II. Foru Planaren* edukiak zein bi foru-plan berrien edukiak biltzen eta antolatzen dituzten hiru foru-planetan:

5.1.- *Esparru orokorra*; haren helburuak eta ekintzak *Gobernu onarekin* eta *Emakumeen ahalduzarekin* lotuta daude, eta, neurri handi batean, honako hauei lotutako Foru Arauaren IV. Tituluko edukiei erantzuten diete:

- Parte-hartzean oinarritutako demokraziantz.
- Zainketa duinen eta guztientzakoeren eredu sozialerantz.
- Bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzurako ekonomiarantz.

5.2.- *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana*; haren helburu eta ekintzek, neurri handi batean, honako hauei lotutako Foru Arauaren IV. Tituluko edukiei erantzuten diete:

- Zainketa duinen eta guztientzakoeren eredu sozialerantz.
- Bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzurako ekonomiarantz.
- Bizitzarako ingurune iraunkorrerantz.

5.3.- *Aurre! Foru Plana*; haren helburu eta ekintzek, neurri handi batean, honako hauei lotutako Foru Arauaren IV. Tituluko edukiei erantzuten diete:

- Indarkeria matxistarik gabeko bizitzarantz.



5.1.- ESPARRU OROKORRA: GOBERNANTZA ONA ETA EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Esparru orokorreko 33 ekintzak Berdintasunerako II. Foru Planekoak dira, **foru-departamentu guztiak** hartzen dituzte eraginpean eta berdintasunerako foru-politiken zeharkako eta funtsezko bi alderdi dituzte ardatz (foru-departamentu guztien alderdi komunak dira): gobernantza ona eta emakumeen ahalduntzea. Horretarako, ekintzek hiru arlo eta helburu nagusiri erantzuten diete:

- Genero-ikuspegia Aldundiaren administrazio-prozedura guztietan txertatzea: 9 ekintza.
- Berdintasunerako lankidetzeta eta koordinazioa beharrezkoak diren egitura, prozesu eta dinamiken bidez garatzea. 6 ekintza.
- Emakumeak ahalduntzeko baliabideak eta laguntza: 18 ekintza.

Jarraipena Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarraipen sistematiko orokorraren esparruan baino ez da egin, EBA (Emaitzetara Bideratutako Aurrekontuak) eta *Midenet* aplikazioen bidez.

Esparru horretan, 2018. urtean, departamentuek:

- 33 ekintza programatu zituzten guztira, hau da, esparruko ekintza guztien % 100 (2017an, esparru orokorreko ekintza guztien % 55 programatu ziren).
- 28 ekintza egin zituzten guztira, hau da, programatutakoek % 85 (esparruko guztien % 85).
- Egindako 28 ekintzetatik, 10 amaitu zituzten, hau da, 2018rako programatutakoek % 55 (esparruko guztien % 30).
- Egindako 28 ekintza horietatik, 18 hurrengo urtean ere garatuko dira, hau da, 2018rako programatutakoek % 55 (esparruko guztien % 55).

Ikus daitekeenez, programatutako hamar ekintzetatik zortzi eta erdi landu dira (% 85). Hori oso ehuneko handia da, ekintza gehienak ia foru-departamentu guztiek egin dituztela kontuan hartuta. Horrek nabarmen areagotzen ditu ekintzen ondorioak eta eragina.

Gainera, hasi diren eta datorren urtean ere garatuko diren ekintzen kopurua ere oso handia da (programatutako hamar ekintzetatik 5,5, hau da, erdiak baino gehiago). Horrek adierazten du alderdi orokorrak finkatuta eta sistematizatuta daudela foru-departamentu guztien urteko plangintzan eta egikaritzean.

5.1.1.- Jarduketarik esanguratsuenak

Eremu orokorraren helburuak eta ekintzak *Gobernantza onarekin* eta *Emakumeen ahalduntzearekin* lotuta daude, eta, neurri handi batean, honako ildo estrategiko hauei lotuta dauden Foru Arauaren IV. Tituluko edukiei erantzuten diete:

- Parte-hartzean oinarritutako demokraziantz.
- Zainketa duinen eta guztientzakoek eredu sozialerantz.
- Bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzurako ekonomiarantz.

2018an foru-departamentu guztiek GOBERNANTZA ONAREKIN lotuta egin dituzten jarduketarik esanguratsuenak jarraipen-txosten honen aurreko ataletan jasota daude. Adibidez:



- 3.1.2 atala: Gipuzkoako udalerrietan emakumeen eta gizonen berdintasunerako proiektu estrategikoak babesteko diru-laguntzetarako deialdia.
- 3.1.3 atala: Legorreta, Zaldibia eta Segurako udalekin bertako berdintasun-arloak sortzeko egindako plangintza.
- 3.1.4 atala: “Berdinbidean” eta “Berdinbidean txikiak” programak.
- 3.1.5 atala: Lurraldeko berdintasun-arloko teknikarien lan-eremua, genero-mainstreamingari lotua.
- 3.3.1 atala: “Berdintasuna Orain”. Kontziliazio erantzunkidearen inguruko kanpaina. 50-50 kanpaina.
- 3.3.8 atala.- *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana*.
- 4.1.1 atala: Foru-departamentu guztien 2018ko berdintasunerako programazioa: plangintza, egikaritzea, jarraipena eta ebaluazioa.
- 4.2 atala: Ordezkaritza eta parte-hartze orekatua Foru Aldundiko esparru eta maila guztietako lantaldeetan.
- 4.3 atala: Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko informazioa eta barne- zein kanpo-komunikazioa.
- 4.4.1 atala: *Berdintasunerako Foru Plangintzaren* adierazleak Emaitzetara Bideratutako Aurrekontuetan (EBA) aplikazioan.
- 4.5 eta 4.6 atalak: Kontratatueta eta diru-laguntzetan berdintasunari lotutako klausulak txertatzea.
- 4.7 atala: Foru-departamentuek landutako arau-aurreproiektuen genero-eraginaren alde aurreko ebaluazio-txostenak.
- 4.8 atala: Aurrekontuen plangintza eta kudeaketa genero-ikuspegiarekin eta genero-zeharkakotasunarekin, EBA (Emaitzetara Bideratutako Aurrekontuak) aplikazioaren bidez.
- 4.9.1 eta 4.9.2 atalak: Berdintasun-arloko berriazko prestakuntzarako prestakuntza-programak.
- 4.9.3 atala: Foru Aldundiko langileei zuzendutako telelanaren esperientzia *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planaren* barruan, Diputatuen Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 8ko Erabaki bidez arautua.

2018an nagusiki *Berdintasunerako Organoak* EMAKUMEEN AHALDUNTZEARI lotuta egindako jarduketarik esanguratsuenak jarraipen-txosten honen aurreko ataletan jasota daude. Adibidez:

- 3.1.1 atala: “*Berdinbidean*” eta “*Berdinbidean Txikiak*” programak, emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziala.
- 3.2.1 atala: Irungo “*Alardezaleak*” elkarteak.
- 3.2.2 atala: GUNEA, Berdintasunerako Foru Kontseilua.
- 3.2.3 atala: elkarte feministen eta emakumeen elkarten proiektu estrategikoetarako diru-laguntzak.
- 3.2.5 atala: Erabaki- eta eragin-esparruetan emakumeen sarbidea areagotzen laguntzea.
- 3.2.6 atala: Donostiako Emakumeen Etxea.
- 3.3.1 atala: “50-50: erdiak gara, izan gaitezen erdiak” kanpaina.



- 3.3.2 atala: “Erdiak gara, izan gaitezen erdiak” adierazpen instituzionala.
- 3.3.4 atala: “Hitz-ahalduntzea” proiektua.
- 3.3.5 atala: *Aniztasuneko Bizikidetzarako Foru Plana*.
- 3.3.8 atala.- *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana*.

5.2.- KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDERAKO FORU PLANA

Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planak 34 ekintza ditu guztira. Ekintza horiek zainketen eta bizitzaren iraunkortasunaren gaia gizartearen muinera eramatea eta erantzunkidetasuna eta kontziliazioa zainketa duinak eta guztientzakoak lortzeko ezinbesteko tresna gisa garatzea dute helburu. Hau da, erakundeen, enpresen eta pertsonen erantzunkidetasuna bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzura egongo den ekonomia bat eta bizitzeko ingurune iraunkor bat lortzeko berme eta baliabidetzat hartzea.

Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planaren garapena *Berdintasunerako Organoari* eta **5 foru-departamenturi** dagokie, eta departamentu horiek planifikatu, programatu eta inplementatu behar dituzte Foru Planeko 34 ekintzak.

Esparru horretan, 2018. urtean, departamentuek:

- 31,5 ekintza programatu zituzten guztira, hau da, Foru Planeko ekintza guztien % 93 (2017an 5 ekintza programatu ziren, hau da, Foru Planeko ekintza guztien % 15).
- 30,5 ekintza landu zituzten guztira (5 ekintza 2017an), hau da, programatutako 31,5en % 97 (Foru Planeko 34 ekintzen % 90).
- Landutako ekintzetatik, 11,7 amaitu ziren (4 ekintza 2017an), hau da, 2018rako programatutako 31,5en % 37 (Foru Planeko 34 ekintzen % 34).
- Landutako ekintza horietatik, 18 hurrengo urtean ere garatuko dira, hau da, 2018rako programatutakoen % 60 (Foru Planeko 34 ekintzen % 55).

Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana 2017an onartu zen. 2018. urtean, azpimarratu beharra dago programatutako ekintzen eta ekintza horietatik landu direnen ehunekoak oso handiak eta garrantzitsuak izan direla (Foru Planeko ekintzen % 93 eta % 97, hurrenez hurren).

5.2.1.- Jarduketarik esanguratsuenak

Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planaren helburu eta ekintzek, neurri handi batean, honako hauei lotutako Foru Arauaren IV. Tituluko edukiei erantzuten diete:

- Zainketa duinen eta guztientzakoaren eredu sozialerantz.
- Bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzurako ekonomiarantz.
- Bizitzarako ingurune iraunkorrerantz.

2018an landutako jarduketarik esanguratsuenak jarraipen-txosten honen aurreko ataletan jasota eta *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planaren* inplementazioari lotuta daude:

- 3.3.2 atala: Kontziliazio erantzunkideari buruzko enpresa-topaketa



- 3.3.8, 4.1.1, 4.3.1 eta 4.9.3 atalak: *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planeko* ekintzen implementazioa. “Erantzunkide” enpresa-sarea. Enpresak “Etorkizuna Eraikiz” programako kontziliazio-esperientzia pilotuan. “Herrilab-Beasain”, kontziliazio erantzunkideari lotutako proben lehen laborategia; diagnostikoa udal-agente guztiekin.

Laburbilduz, honako hau azpimarra daiteke:

- 2018rako planifikatutako ekintzen % 97 landu dira, eta, beraz, egikaritze-maila oso handia izan da. Izan ere, Foru Planeko 34 ekintzetako 31,5 planifikatu ziren, eta 30,51 landu ziren, hau da, Foru Planeko ekintzen % 90.
- “HerriLab” ardatzean, HerriLab Beasain esperientzia garatu da Beasaingo udal-agente guztiekin. Baterako diagnostiko bat egin da, esku hartzeko ildoak zehaztu dira eta kontziliazio erantzunkideari lotutako jardunbideen tokiko laborategi bat osatu da. Laborategi horren proposamenak 2019an implementatuko dira.

5.3.- AURRE! FORU PLANA

Emakumeek jasaten duten indarkeriari aurreko egiteko *Aurre! Foru Planak 69 ekintza desberdin* ditu guztira. Ekintza horiek oinarritzko lau esparruri lotuta daude: prestakuntza, ikerketa, prebentzioa eta sentsibilizazioa eta arreta.

Departamentu gehienei dagozkien ekintza horiek, eta, bereziki, honako hauei:

- *Diputatu Nagusiaren Alorrari.*
- *Ekonomia Sustapena, Landa Garapena eta Lurralde Oreka Departamentuari.*
- *Gizarte Politikako Departamentuari.*
- *Gobernantza Departamentuari.*
- *Kultura, Turismo, Gazteria eta Kiroleko Departamentuari.*
- *Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako Departamentuari.*
- *Ogasun eta Finantza Departamentuari.*

EMAKUMEEK AURRE EGIN BEHARREKO INDARKERIAREN AURKAKO AURRE! FORU PLANAREN URTEKO PROGRAMAZIOA: Foru-plan hori 2016. urtearen amaieran onartu zen, eta zazpi foru-departamentu inplikatzin dituzten 17 helburu eta 69 ekintza biltzen ditu.

- 2018rako, foru-departamentuek 56,23 ekintza programatu zituzten guztira, hau da, planeko ekintza guztien % 78,6.
- Haietatik, planifikatutako ekintzen % 85 landu ziren, eta, beraz, egikaritze-maila oso handia izan da.
- Programatutako 56,23 ekintzetatik, % 46 amaitu ziren. Gainerakoak, berriz, 2018an hasi ziren, eta 2019an ere garatuko dira.

Berdintasunerako Organoak Aurre! Planeko ekintzak zehazten lagundu die ekintza horiek egiteko ardura duten zerbitzuei 2018an. Horretarako, honako bilera hauek egin dira:

- Batzorde politiko-teknikoaren 5 bilera, indarkeria matxistaren aurkako foru-politikaren arlokoak.



- Batzorde Operatiboaren 4 bilera. Batzorde hori *Berdintasunerako Organoko* teknikari batez eta kanpoko laguntza batez (berdintasun-arloko bi teknikariz) osatuta dago, eta adierazitako funtzio guztiak uztartzen eta garatzen ditu.

Gainera, departamentu-ekintzak batera egiteko bi lantalde eratu dira:

- *Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Zerbitzuarekin* eta *Berdintasunerako Organoarekin* sortutako lantaldea. *Aurre! Planak* garrantzi handia ematen dio prebentzio-esparruari, eta, horregatik, lan-eremu bat ezarri da bi zerbitzuen artean. Lantalde horren helburu nagusia foru-plan horren In 11.5 ekintza bultzatzea eta koordinatzea da: Udaleko berdintasunaren eta gazteriaren arloetako zerbitzuen arteko lankidetzaren lantzea, hainbat ekimen (hala nola Beldur Barik) bideratu ahal izateko. *Gazteria Zerbitzuaren* eta *Berdintasunerako Organoaren* arteko lantaldea 5 aldiz bildu da 2018an.

2018an, gainera, hiru saioko lan-prozesu bat egin da gazteriaren eta berdintasunaren arloetako udal-teknikariekin, eta indarkeria sexistaren prebentzioa batera lantzeko gaiak identifikatu dira. Aurreikusitakoaren arabera, 2019an jarraitutasuna emango zaio udal-arloekin lan egiteko eremuari.

- *Funtzio Publikoko Zerbitzuaren* eta *Berdintasunerako Organoaren* arteko lantaldea, *Aurre! Planaren* esparruan, Funtzio Publikoko Zerbitzua In 8.1 ekintzaren garapenean aholkatzeko ("Foru-administrazioaren barruan jazarpen sexista eta sexu-jazarpena prebenitzeko protokoloa berrikustea, eta jarraipena egiteko mekanismoak abian jartzea. Gipuzkoako Foru Aldundia partaide den enpresa publikoei laguntza ematea lan-esparruko jazarpen sexista eta sexu-jazarpena prebenitzeko eta arazoari aurre egiteko protokoloak sortu eta abian jar ditzaten"). Lantalde hori 2 aldiz bildu da 2018an.

Testuinguru horretan, 2018. urtean departamentuek 56,23 ekintza programatu zituzten guztira (45 2017an), eta 47,8 ekintza landu zituzten (35 2017an). Landutako ekintzetatik, 25,9 amaitu ziren (19 2017an), 21,9 hurrengo urtean ere garatuko dira (16 2017an), eta programatutako 56,23 ekintzetako 6,7 ez ziren hasi (45 ekintzetako 10 2017an).

Beraz, ikus daitekeenez, 2018an 2017an (hau da, foru-plana garatu zen lehen urtean) baino ekintza gehiago programatu, landu eta amaitu dira, eta programatutako ekintza gutxiago geratu dira landu gabe.

5.3.1.- Jarduketarik esanguratsuenak

Aurre! Foru Planaren helburu eta ekintzek, neurri handi batean, honako hauei lotutako Foru Arauaren IV. Tituluko edukiei erantzuten diete:

- Indarkeria matxistarik gabeko bizitarantz.

Helburu horrekin, 2018an landutako ekintzarik esanguratsuenak honako hauek izan dira:

ERANTZUN PUBLIKOA EMATEKO PROTOKOLO INSTITUZIONALA ETA PROTOKOLOA AURKEZTEKO EKITALDIA: Indarkeria sexistaren biktimen erreparazioaren eta aitortpenaren esparruan, *Berdintasunerako Organoak*, alde batetik, indarkeria sexistako kasuei erantzuteko erantzun publiko instituzionaleko foru-protokolo bat landu du, eta, bestetik, lurraldean erantzun publiko instituzional bat sortzeko proposamen bat.

Lan horri esker, Protokoloa 30 aldiz aktibatu da 2018an. Erantzun publikoak udalekiko eta Foru Aldundiarekiko koordinazioa behar izan du, erantzun publiko instituzionalaren egokitasuna eta kasuak baloratzeko. Lan horri esker, erantzun publikoa areagotu eta koordinatu ahal izan da lurraldean gertatutako indarkeria sexistako kasuetan.



UDAL-ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN ERASO SEXISTEI AURREA HARTZERA ETA HORIEN AURREAN JARDUTERA ZUZENDUTAKO PROTOKOLO BAT EGITEKO GIDA Lan-esparruan eraso sexistei aurrea hartzeko eta horien aurrean jarduteko tokiko protokoloen sorkuntza bultzatzeko gida bat landu da. Lan-prozesu horretan, dagoeneko horrelako protokoloak badituzten udalerrietako esperientziak hartu dira kontuan, eta lan-eremuak sortu dira udaletako berdintasun-teknikariekin.

Hori guztia dela eta, gida lantzea bera udalerriek horrelako protokoloak sortzera bideratutako prozesuak abian jartzeko estrategia bat izan da.

GAZTERIAREN ETA BERDINTASUNAREN ARLOETAKO UDAL-TEKNIKARIEN ARTEKO LAN-EREMUA Ekintza hori zehazteko, *Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Zerbitzuaren* eta *Berdintasunerako Organoaren* arteko baterako lan-prozesu luze bat egin behar izan da, 2017. urtean hasita. Prozesu horren ondorioz, 2018an hiru lan-saio egin ziren udal-teknikariekin. Saio horietan, bi lan-arloen esparru teorikoak partekatu eta 2019an eremuari jarraitutasuna emateko lan-edukiak adostu ziren.

Baterako lan-prozesu horietan, foru-mailan zein toki-mailan, ezinbestekoa eta konplexua da lan-esparru komunak sortzea. Hori dela eta, inplikaturako bi arloetako lan-esparruak bateratu izana eta haurtzaroko, nerabezaroko eta gaztaroko indarkeria matxistaren prebentzioari ekiteko edukiak adostu izana positiboa izan da eta finkaturako helburuak betetzen ditu.

LAN-ESPARRUAN ERASO SEXISTARI AURREA HARTZEKO FORU PROTOKOLOA LANTZEA: 2018an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren lan-esparruan eraso sexistei aurrea hartzeko eta erantzuteko protokolo berri bat lantzeko prozesua jarri zuen abian Funtzio Publikoko Zuzendaritzak.

Horretarako, fase diagnostiko bat egiten hasi zen, alde batetik langileek eraso sexistaz zuten pertzepzioa ezagutzeko, eta, bestetik, gaur egun horrelako egoerarik badagoen jakiteko. 2019an Protokoloa lantzea aurreikusi da, fase diagnostikoan abian jarritako lan-prozesuetan eta lortutako emaitzetan oinarrituta. Ekintza horren implementazioan, *Berdintasunerako Organoak* laguntza eta aholkularitza eskaini dio Funtzio Publikoko Zuzendaritzari.

Aurrekoek gain, 2018an landutako eta jarraipen-txosten honen aurreko honako atal hauetan jasotako ekintzak azpimarra daitezke:

- 3.1.4 atala: *Berdinbidean eta Berdinbidean Txikiak* programak; indarkeria matxistaren prebentzioa.
- 3.3.2 atala: “DENOK ZU” kanpaina.
- 3.3.3 atala: “BELDUR BARIK” erakunde arteko programa.
- 3.4.1 atala: *Aurre! Foru Planeko* gizarte-politikaren arloko ekintzen implementazioa.

5.4.- GARATUTAKO ALDERDIETARAKO HURBILKETA KUANTITATIBOA

Ehunekoak titulu honen item bakoitzean alde aurretik emandako datu eta azalpenen zenbatespen kuantitatiboa dira (informazio gehiago 2.5 puntuan).

Ehunekoa Foru Arauan kapitulu bakoitzean garatzeko jasotako itemen guztizko kopuruan oinarrituta kalkulatu da. Adibidez, *Aurre! Planaren* kasuan, egindako ekintzen (47,8 ekintzen)



ehunekoa Foru Planeko ekintza guztietan (69 ekintzetan) oinarrituta kalkulatu da, eta, beraz, % 69 izan da.

Kapitulu honetan, ezin da zenbatetsi 2015-2018an metatutakoa, edukiak antzekoak izanik ere haien idazkuntza eta antolaketa ez baitatoz bat urteetan. Hau da, gaur egun indarrean dagoen *Berdintasunerako 2017-2019ko Foru Plangintzako* ekintzak (2018ko eta 2017ko jarraipenerako erabiliak) ez datoz guztiz bat eta ezin dira zuzenean parekatu *Berdintasunerako II. Foru Planeko* neurriekin (2015-2016ko jarraipena). Horren ondorioz, ez da jaso 2015-2018ko metatua, Foru Arauaren gainerako tituluetan bezala, urte bakoitzean landutakoa baizik.

Horren ordeaz, alde batetik 2017. eta 2018. urteetan landutako ekintzen metatua jaso da taulan, eta, bestetik, 2015. eta 2016. urteetan landutako ekintzen metatuaren laburpena, taularen ondorengo paragrafoan.

Foru Arauaren IV. Tituluari dagokionez, hurbilketa kuantitatiboak honako parametro hauek islatzen ditu:

IV. TITULUA: BERDINTASUNAREN SUSTAPENA FORU ESKU- HARTZE ESPARRUETAN	2015- 2016ko jarraipena		2017ko jarraipena 2017an landutako itemak		2018ko jarraipena 2018an landutako itemak		2017-2018an metatua 2017-2018an landutako itemak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Jarraipen-datuak kapituluz kapitulu								
<i>Berdintasunerako 2017-2019ko Foru Plangintza.</i> <i>Eremu Orokorra</i> (parte-hartzean oinarritutako demokraziarantz, zainketa duinen eta guztientzako eneredu sozialerantz, bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzurako ekonomiarantz): 33 ekintza ditu planifikatuta guztira.	(*)	(*)	17,2/33	% 52	28/33	% 85	29/33	% 88
<i>Berdintasunerako 2017-2019ko Foru Plangintza.</i> <i>Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Plana</i> (zainketa duinen eta guztientzako eneredu sozialerantz, bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzurako ekonomiarantz, bizitarako ingurune iraunkorrerantz): 34 ekintza ditu planifikatuta guztira.	(*)	(*)	5/34	% 15	30,5/34	% 90	30,5/34	% 90
<i>Berdintasunerako 2017-2019ko Foru Plangintza.</i> <i>Emakumeek jasaten duten indarkeriari aurre egiteko Aurre! Foru Plana</i> (indarkeria matxistarik gabeko bizitarantz): 69 ekintza ditu planifikatuta guztira.	(*)	(*)	35/69	% 51	47,8/69	% 69	54,8/69	% 79



(*) 2015-2016KO HURBILKETA KUANTITATIBOA ezin zaie zuzenean gehitu 2017ko eta 2018ko hurbilketei 2015-2108ko metatuan, baina kontuan hartu behar da urte horietan egindako jarduketan isla gisa. Nolanahi ere, hurbilketa horrek honako parametro hauek islatu zituen 2/2015 Foru Arauaren 2015-2016ko jarraipenean:

- *Berdintasunerako II. Foru Planean* parte-hartzean oinarritutako demokraziari dagokionez jasotako 48 neurrien % 62 garatu ziren.
- *Berdintasunerako II. Foru Planean* zainketa duin eta guztientzako eneredu sozialari dagokionez jasotako 34 neurrien % 33 garatu ziren.
- *Berdintasunerako II. Foru Planean* bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzurako ekonomiari dagokionez jasotako 40 neurrien % 45 garatu ziren.
- *Berdintasunerako II. Foru Planean* bizitzarako ingurune iraunkorrari dagokionez jasotako 23 neurrien % 6 garatu ziren.
- *Berdintasunerako II. Foru Planean* indarkeria matxistarik gabeko bizitzari dagokionez jasotako 42 neurrien % 68 garatu ziren.

2018KO JARRAIPENAREN ZENBATESPEN KUANTITATIBOAREN BIDEZ, honako alderdi hauek ikus daitezke:

- **Hiru foru-planetan landutako ekintzen kopuruak igoera nabarmena izan du**, 2017an landutakoekin alderatuta. 2018. urtean, 28 ekintza landu dira Esparru Orokorrean (aurreko urtean 17), 30,5 ekintza *Kontziliazio Erantzunkiderako Planean* (aurreko urtean 5) eta 47,8 ekintza *Aurre! Foru Planean* (aurreko urtean 35).
- Logikoa denez, **landu diren ekintzek plan bakoitzeko ekintzen guztizkoan duten proportzioak ere oso igoera handia** izan du. 2018. urtean, Esparru Orokorreko ekintzen % 85, *Berdintasunerako Foru Planeko* ekintzen % 90 eta *Aurre! Foru Planeko* ekintzen % 69 landu dira.
- Era berean, 2017an eta 2018an metatutakoak ere igoera handia izan du: bi urte horietan, Esparru Orokorreko ekintzen %88, *Berdintasunerako Foru Planeko* ekintzen % 90 eta *Aurre! Foru Planeko* ekintzen % 79 landu dira. Eta, horri guztiari, 2015-2016 aldian landutako ekintzak gaineratu behar zaizkio (arestian adierazi dugunez, ezin dira zuzenean parekatu eta batu 2017-2018 aldikoekin).

5.5.- 2018AN LANDUTAKO JARDUKETARIK ESANGURATSUENAK ETA IV. TITULUKO ITEMEI DAGOKIENEZ GERATZEN DIREN ERRONKAK

Laburbilduz, honako alderdi hauek azpimarra ditzakegu:

5.5.1.- Jarduketa esanguratsuak

→ Departamentuek *Esparru Orokorra* era orokor eta sistematizatuan garatzeko programatutako jarduketan artean landu direnen ehuneko handia izan da (% 85), esparru horretako ekintzen % 100era iritsi den urteko programazioan aplikatu baita.



→ *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planeko* ekintzak oso neurri handian inplementatu dira 2018an; izan ere, programatutako ekintzen (hots, planeko ekintza guztien % 93ren) % 97 landu dira.

→ Departamentuek *Aurre! Foru Plana* garatzeko programatutako ekintzak (planeko ekintza guztien % 81,5) neurri handian inplementatu dira. Izan ere, landu direnen ehunekoa handia izan da (% 85), eta hurrengo urtean ere garatuko diren ekintza konplexuen ehunekoa % 39ra iritsi da.

→ “Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean erantzun publikoa emateko Protokolo Instituzionala” 30 alditan jarri da abian. Horri esker, erantzun, koordinazio eta koherentzia instituzionala hobetu da lurraldean detektatutako indarkeria sexistako kasuetan.

→ Udal-administrazio publikoan eraso sexistei aurrea hartzera eta horien aurrean jardutera zuzendutako protokolo bat egiteko gida bat eta lan-esparruan eraso sexistari aurrea hartzeko foru-protokolo bat landu dira.

5.5.2.- Geratzen diren erronkak

→ Politika sektorialetan, berdintasunaren ikuspegia txertatzen jarraitzea, politika horiek, administrazio-prozeduretara mugatu gabe, berdintasunerako proaktiboak izan daitezen eta lurraldean bizi diren pertsonen bizitzan eragin erreala izan dezaten.

→ Administrazio-prozedurei lotuta dauden *Eremu Orokorreko* ekintzen jarraipen handiagoa egitea eta foru-politika sektorialetan eta emakumeen eta gizonen berdintasunean duten eragina aztertzea.



6.- XEDAPEN GEHIGARRIAK

6.1.- LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA: GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN EGITURAK EGOKITZEA.

Xedapen honek Foru Arauan jasotako egiturak egokitzeko epeak ezartzen ditu. Batzuk aurreko ataletan aipatu ditugu, eta beste batzuk, berriz, atal honetan landuko ditugu lehen aldiz. Horregatik, guztiak laburbilduko ditugu atal honetan:

6.1.1.- *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren langile-premiak*

Lehenengo xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du:

- “Foru Arau hau indarrean jarri eta **sei hilabeteko epean gehienez**, arau honen 7. artikulua araberaren sortutako *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak* dituen langileen premiei buruzko txosten bat egingo dute Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskudunek, organo horri bere funtzioak garatzeko egitura eta baliabide egokienak eman ahal izateko”.
→ Kotsultatu txosten honen 2.1.1 atala.
- “Horrez gain, **bost urtez behin**, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren* premiak eguneratuko dira, bere funtzioak betetzeko orduan unean-unean egitura egokia eduki dezan”.
→ Berrikuspena 2020. urtean egin beharko da.

6.1.2.- *Departamentu Unitateen langile-premiak*

Lehen xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du:

- “Foru Arau hau indarrean jarri eta *sei hilabeteko epean gehienez*, arau honetako 10. artikulua araberaren sortutako emakumeen eta gizonen berdintasunerako *departamentu-unitateek* dituzten langileen premiei buruzko txosten bat osatuko dute Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskudunek, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu bakoitzaren eskumenak, funtzioak eta dimentsioak kontuan hartuta, nor bere funtzioak behar bezala garatzeko egitura eta baliabideak bermatzeko”.
→ Kotsultatu txosten honen 2.1.2 atala.

6.1.3.- *Berdintasunerako Organoko eta Departamentu Unitateetako lanpostuen hornidura*

Lehen xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du:

- “Foru Arau hau indarrean jarri eta urtebeteko epean gehienez, Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskudunek beharrezko administrazio-prozedurak izapidetuko dituzte, *Emakumeen*



eta Gizonen Berdintasunerako Organoak aurretiko txostena eman ondoren, Diputatuen Kontseiluak Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuetako lanpostuen zerrendaren aldaketa onar dezan, era horretan, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak* eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako *departamentu-unitateek* foru-arau honetan xedatutako funtzioak bete ahal izan ditzaten”.

- “Foru-arau hau indarrean jarri eta **hiru urteko epean gehienez** beteko dira sortzen diren lanpostu berriak”.
- Kontsultatu txosten honen 2.1.1 eta 2.1.2 atalak.

6.2.- BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA: FINANTZAKETA

Bigarren xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du:

- “Gipuzkoako Foru Aldundiak progresiboki gehituko du, orokorrean, **emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak sustatzera bideratutako aurrekontua**, kudeaketako aurrekontu propioaren % **1eko** gutxienerako zenbatekora iritsi arte **2020.** urtean”.

Berdintasunerako Organoaren zein foru-departamentuen **berdintasunerako foru-politiketara bideratutako aurrekontua** kontuan hartuta, **azken urteetako datuak** honako hauek dira:

- 2016ko jarraipena:
 - o Guztizko aurrekontua: 782.601.399 euro.
 - o Berdintasunerako foru-politiken aurrekontua: 3.040.161 euro.
 - o Berdintasunerako foru-politikak: Gipuzkoako Foru Aldundiaren guztizko aurrekontuaren % 0,39.
- 2017ko jarraipena:
 - o Guztizko aurrekontua: 779.023.134 euro.
 - o Berdintasunerako foru-politiken aurrekontua: 5.051.278,14 euro.
 - o Berdintasunerako foru-politikak: Gipuzkoako Foru Aldundiaren guztizko aurrekontuaren % 0,65.
- 2018ko jarraipena:
 - o Guztizko aurrekontua: 793.923.527 euro.
 - o Berdintasunerako foru-politiken aurrekontua: 8.401.365 euro.
 - o Berdintasunerako foru-politikak: Gipuzkoako Foru Aldundiaren guztizko aurrekontuaren % 1,05.



6.3.- HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA: FORU ARAUAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

6.3.1. Foru Arauaren Jarraipen eta Ebaluazio Batzordearen sorkuntza

Hirugarren xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du:

- “Foru-arau hau behar bezala bete, garatu eta aplikatzen dela egiaztatzeko, eta beharrezkoa bada, foru-arau hau berrikusteko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, foru-arau hau indarrean jarri eta **sei hilabeteko epean gehienez**, foru-arauaren Jarraipen eta Ebaluazio Batzordea sortzea onartuko du. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako elkarrizketa sozialerako egituran, hain zuzen ere foru-arau honetako 15. artikuluan xedatutakoan, parte hartzen duten ordezkarien % 50ak osatuta egon beharko du batzorde horrek”.
- Ez da sortu Foru Arauaren Jarraipen eta Ebaluazio Batzordea. 2018an, GUNEAko gogoeta-prozesua amaitu da (informazio gehiago 3.2.2 atalean). Prozesu hori funtsezkoa da Batzordean duen ordezkari-tza zehazteko eta Batzordeari egonkortasuna emateko.

6.3.2. Foru Arauaren urteko jarraipen-txostena

Hirugarren xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du:

- “Urtero, foru-arau honetan xedatutako neurrien **jarraipenari eta egikaritze-mailari buruzko txostena** osatuko du Jarraipen eta Ebaluazio Batzordeak, eta neurriak proposatuko ditu, foru-arauak erabateko eraginkortasuna izan dezan. Txosten hori Gipuzkoako Foru Aldundiko webgunean argitaratuko da”.
- Urteko jarraipen-txosten hori 2016an, 2017an eta 2018an egin da.

6.3.3. Foru Arauaren ebaluazioa

Hirugarren xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du:

- “**Bost urtez behin**, Jarraipen eta Ebaluazio Batzordeak foru-arauari buruzko **ebaluazio-txosten bat** osatuko du, eta Gipuzkoako Batzar Nagusietara bidaliko du. Batzar Nagusiek foru-arau hau berri edo aldatzeko neurri egokienak adostuko dituzte”.
- “Gipuzkoako Foru Aldundiak beharrezko baliabide ekonomikoak ezarriko ditu foru-arauaren ebaluazioa egiteko, material aditua den pertsonaleko parte-hartzea bermatuz”.
- Lehen ebaluazio-txostena 2020. urtean egin beharko da.

6.4.- 2018AN LANDUTAKO JARDUKETARIK ESANGURATSUENAK ETA XEDAPEN GEHIGARRIEI DAGOKIENEZ GERATZEN DIREN ERRONKAK.

Laburbilduz, honako alderdi hauek azpimarra ditzakegu:



6.4.1.- Ekintza esanguratsuak

→ 2018an, bi foru-departamentuko *Berdintasunerako Departamentu Unitateak* (*Gobernantza Departamentuko* unitatea eta *Ogasun eta Finantza Departamentuko* unitatea) izendatu, plazen hornidura egin eta abian jarri dira. Halaber, 2019an *Gizarte Politiketako Departamentuko* unitatea abian jartzeko hartutako erabakiak eta egindako kudeaketa aurreratuak azpimarratu behar dira.

→ Guztizko aurrekontuaren % 1,05 emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru-politikak bultzatu eta garatzera bideratu da.

→ Urteko jarraipen-txosten hau egin da.

6.4.2.- Geratzen diren erronkak

→ Foru Arauaren *Jarraipen eta Ebaluazio Batzordea* sortzea (horretarako, Foru Arauak sei hilabeteko epea ezartzen du, onartzen denetik aurrera zenbatzen hasita) eta batzorde horrek Foru Arauaren urteko jarraipen-txostena egitea.

→ Premiei buruzko txostena balidatu eta izapidetzea, hala badagokio lanpostuen zerrenda aldatzea eta, hala badagokio, *Berdintasunerako Organoan* beharrezkoak diren plaza berrien hornidura egitea (horretarako, Foru Arauak hiru urteko epea ezartzen du, onartzen denetik aurrera zenbatzen hasita).



7.- ONDORIOAK

Foru Arauaren kapitulu bakoitzaren jarraipena txosten honen aurreko ataletan azaldu dugula kontuan hartuta, arestian adierazitako guztiaren sintesi/laburpen orokor bat egingo dugu azken atal honetan.

Horretarako, Foru Arauaren titulu bakoitzaren jarraipenaren azken laburpena bilduko dugu ondorio gisa, eta kasu bakoitzean egindako jardun esanguratsuak eta geratzen diren erronkak azpimarratuko ditugu.

Azken ondorio hauetan azpimarratutako jardun eta erronka bakoitzaren inguruko azalpena eta xehetasunak Foru Arauaren Titulu bakoitzean dagokion atalean kontsulta daitezke.

Ondorioetan, bi alderdi bereizi ditugu:

7.1.- 2018an landutako jarduketarik esanguratsuenak

7.2.- Geratzen diren erronkak

7.1.- 2018AN LANDUTAKO JARDUKETARIK ESANGURATSUENAK

7.1.1.- I. TITULUA: Eskumenak, funtzioak, antolaketa eta finantzaketa.

→ Gorakada 2018an landutako funtzioetan eta garatutako itemetan eta 2015-2018ko metatuan, I. Tituluko bost kapituluetakoa lautan.

→ 2018ko uztailean, bi departamentuko *Berdintasunerako Departamentu Unitateak* jarri dira abian (*Gobernantza Departamentukoa* eta *Ogasun eta Finantza Departamentukoa*, hain zuzen ere), eta *Gizarte Politiketako Departamentuan* hirugarren unitate bat abian jartzeko kudeaketak aurreratuta daude.

→ 2018an sortutako *Berdintasunerako Departamentu Unitateei* zuzendutako berriazko prestakuntza-plana landu da.

→ Gipuzkoako Foru Aldundiko langileei berdintasun-arloko prestakuntza-ibilbide osatu bat eskainiko dien urte anitzeko prestakuntzako esparru-plana landu da, JAKITUN programaren barruan.

→ 2015ean Foru Araua onartu zenez geroztik Gipuzkoako Foru Aldundian genero-eragina aldeztetik ebaluatzeko egindako prozesu guztien kanpoko ebaluazio bat egin da. Ebaluazio hori aitzindaria da gure ingurunekeo administrazio publikoen arau-produkzioan, eta foru-departamentu guztietako arau-prozesu guztiak aztertu ditu. Kasu bakoitzean, arau-proiektua, genero-eraginaren aldeztetik aurreko ebaluazioa, dagokion egiaztapen-txostena eta aldizkari ofizialean behin betiko argitaratutako araua konparatu dira. Identifikatutako hobekuntza-esparruetan jardungo da 2019an.



<p>→ <i>Berdintasunerako Organoak Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuarekin</i> “Gipuzkoako hondakinak kudeatzeko Plan integrala” lantzeko fasean genero-ikuspegia txertatzeko egindako lana eta koordinazioa.</p>
<p>→ <i>Berdintasunerako Organoak</i> “Etorkizuna Eraikiz Think Tank”, “HerriLab” eta “Ekinez ikasi” proiektuen diseinua, plangintza eta jarraipena egiteko bileretan parte hartu du, ekimen horietan guztietan berdintasuna zeharkakotzeko.</p>
<p>→ Legorreta, Zaldibia eta Segurako udalekin kudeaketak egin dira, 2019an beren berdintasun-arloak eta berdintasunerako egitura teknikoak sortu eta abian jartzeko.</p>
<p>→ 2018an, diagnostiko bat egin da Beasaingo udal-agenteeekin, Gipuzkoako <i>Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planeko</i> “Herrilab Beasain” ekimenaren esparruan. Ekimen horrek jarraitutasuna izango du 2019an, diagnostiko horretan proposatzen diren ekintzen garapenarekin.</p>
<p>→ 2018an, GUNEAREN (hots, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako mugimendu feministaren eta emakumeen elkarte-mugimenduaren arteko solaskidetza politikoko gunearen) egiturari eta funtzionamenduari buruzko gogoeta egiteko prozesua (2017an hasi zena) amaitu zen.</p>
<p>→ Aurreikusitakoaren arabera 2019. urtearen hasieran egingo den “Feminismoa 4.0: feminismoaren olatu berriaren irakurketa sozialak eta politikoak” Nazioarteko Kongresua prestatu da.</p>

7.1.2.- II. Titulua: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako berriazko politikak

<p>→ Lurraldeko berdintasun-teknikarien lan-esparruan generoko mainstreaming-estrategien garapenaren eta indarkeria matxistaren prebentzioaren inguruan egindako mintegiak.</p>
<p>→ Gipuzkoako udalerrietako proiektu estrategikoetarako babesa eta Legorreta, Zaldibia eta Segurako udalekin berdintasun-arloez hornitzeko egindako kudeaketak.</p>
<p>→ Indarkeria matxistaren prebentzioa eta emakumeen ahalduntzea Berdinbidean eta Berdinbidean txikiak programen esparruan.</p>
<p>→ GUNEAREN gogoeta-prozesuaren amaiera eta elkarte feministen eta emakumeen elkarten proiektu estrategikoei, “Alardezaleak” elkarteari eta Donostiako Emakumeen Etxeari emandako babesa.</p>
<p>→ <i>Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planeko</i> ekintzen inplementazio handia, “Gizonentzat eta emakumeentzat aukera-eremuak sortzen dituen herritartasun aktiboa” lan-ildoan egindako jarduketan kasuan bereziki.</p>
<p>→ “50-50” sentsibilizazio-kanpaina, dauden genero-arrailek agerian uzteko kanpaina, “BELDUR BARIK” programari lotutakoa eta indarkeria matxistaren prebentziorako “DENOK ZU” eskola-kanpaina.</p>
<p>→ <i>Berdintasunerako Organoak</i> eta <i>Gizarte Politiketako Departamentuak</i> gizarte-politiken arloan <i>Aurre! Foru Planaren</i> barruan batera landutako ekintzen inplementazioa.</p>



→ Laneko eta baterako hausnarketako lau saio garrantzitsu egin dituen “Hausnarbide” gunea abian jarri izana.

→ Indarkeria matxistaren balorazioaren, prebentzioaren, arretaren eta biktimen erreparazioaren esparruetako Jardunbide Egokien Bankurako jardunbide egokien 32 fitxa landu izana.

→ “Bizikidetza aniztasunean. LGTBI+ populazioaren errealitateen diagnostikoa Gipuzkoan (2018)” ikerketa egin izana.

→ “Gipuzkoako prostituzioari buruzko txostena” egin izana.

7.1.3.- III. Titulua: Genero-ikuspegia Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardueretan eta Gipuzkoako lurralde historikoko foru-sektore publikoko entitateen jardueretan integratzeko neurriak.

→ *Berdintasunerako 2017-2019ko Foru Plangintzako* hiru planak osatzen dituzten 136 ekintzetako 120 (hau da, ekintza guztien % 88) programatu dira. Halaber, 107 ekintza landu dira, hau da, departamentuek programatutako 120 ekintzen % 89.

→ Komunikazio ez-sexista eta inklusiboa erabili da, oro har, eta gizartea emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren kontrako jarrera proaktiboen inguruan sentsibilizatzeko albisteak eta jarduketak sistematikoki zabaldu dira.

→ Departamentuen arau-ekimenen genero-eraginaren alde aurreko ebaluazio-txostenak eta *Berdintasunerako Organoak* landutako aginduzko egiaztapen-txostenak sistematizatu eta orokortu dira. Halaber, kanpoko ebaluazio aitzindaria egin da, eta, horren barruan, 2/2015 Foru Araua onartu zenetik 2018ra arte egindako txosten guztiak aztertu dira.

→ Foru Aldundiko langileei zuzendutako eta *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planaren* barruan garatutako telelanaren esperientziak gora egin du, eta 2018an langile gehiagorentzat ireki da, aurreko urteko esperientzia pilotuaren ondorioz.

→ JAKITUN prestakuntza-programa jarri da abian, eta, horren barruan, prestakuntza-ibilbide bat egin da Gipuzkoako Foru Aldundiko langileentzat, Gipuzkoan berdintasunaren arloan ematen den prestakuntzaren azterketa egin da eta bi esperientzia pilotu egin dira Emakumeen Etxeetan eta Hobetuzen.

→ Berdintasun-arloko berriazko prestakuntzari lotutako orduak, ikastaroak eta saioak prestakuntza-orduen guztizkoan duten ehunekoak gora egin du. Era berean, gora egin dute berdintasunean berriaz prestatutako emakumeen eta pertsonen kopuruak eta haiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren prestakuntzan parte hartu dutenen guztizkoan duten ehunekoak.

7.1.4.- IV. Titulua: Berdintasunaren sustapena foru esku-hartze esparruetan.

→ Departamentuek *Esparru Orokorra* era orokor eta sistematizatuan garatzeko programatutako jarduketan artean landu direnen ehunekoa handia izan da (% 85), esparru horretako ekintzen % 100eko urteko programazioan aplikatu baita.



→ *Kontziliazio Erantzunkiderako Foru Planeko* ekintzak oso neurri handian inplementatu dira 2018an; izan ere, programatutako ekintzen (hots, planeko ekintza guztien % 93ren) % 97 landu dira.

→ Departamentuek *Aurre! Foru Plana* garatzeko programatutako ekintzak (planeko ekintza guztien % 81,5) neurri handian inplementatu dira. Izan ere, landu direnen ehunekoa handia izan da (% 85), eta hurrengo urtean ere garatuko diren ekintza konplexuen ehunekoa % 39ra iritsi da.

7.1.5.- Foru Arauaren xedapen gehigarriak

→ 2018an, bi foru-departamentuko *Berdintasunerako Departamentu Unitateak (Gobernantza Departamentuko unitatea eta Ogasun eta Finantza Departamentuko unitatea)* izendatu, plazen hornidura egin eta abian jarri dira. Halaber, 2019an *Gizarte Politiketako Departamentuko unitatea* abian jartzeko hartutako erabakiak eta egindako kudeaketa aurreratuak azpimarratu behar dira.

→ Guztizko aurrekontuaren % 1,05 emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru-politikak bultzatu eta garatzera bideratu da.

→ Urteko jarraipen-txosten hau egin da.

7.2.- GERATZEN DIREN ERRONKAK

7.2.1.- Foru Arauaren I. Titulua

→ Langileen premiei buruzko txostenetan *Berdintasunerako Organoaren* egitura-baliabideei dagokienez zehaztutako hobekuntzak lantzea eta garatzea.

→ 2018an *Berdintasunerako Departamentu Unitateak* sortzeko eta abian jartzeko hasitako prozesua amaitzea.

7.2.2.- Foru Arauaren II. Titulua

→ II. Tituluaren 24 funtzioen artean oraindik hasi ez den bakarra lantzea: emakumeen eta ordena heteropatriarkala hausten duten beste pertsona batzuen parte-hartze soziopolitikoak oztopatzen duten aurreiritzien aurkako borroka eta balio-aldaketa sustatzea.

7.2.3.- Foru Arauaren III. Titulua

→ Emakumeen eta gizonen ordezkariak orekaturako klausulak kide anitzeko organo, epaimahai eta abar guztietara zabaltzea.



→ Aldundiaren kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasun-klausulak era orokor eta sistematizatuan txertatzea.

→ Gipuzkoako Foru Aldundian egindako genero-eraginaren alde aurreko ebaluazio-txostenen inguruan egindako kanpoko ebaluazioaren ondorioak aplikatzea. Halaber, arau-aurreproiektuak berdintasunaren ikuspuntutik hobetzera zuzendutako eta *Berdintasunerako Organoak* kasu bakoitzerako proposatutako neurri zuzentzaileak neurri handiagoan txerta daitezen lortzea, 2018an 36 kasuetako 10etan txertatu ziren bezala.

→ Berdintasun-arloko prestakuntzan parte hartzen duten emakumeen kopuruaren eta gizonen kopuruaren arteko aldea murriztea.

7.2.4.- Foru Arauaren IV. Titulua

→ Politika sektorialetan, berdintasunaren ikuspegia txertatzen jarraitzea, politika horiek, administrazio-prozeduretara mugatu gabe, berdintasunerako proaktiboak izan daitezen eta lurraldean bizi diren pertsonen bizitzan eragin erreala izan dezaten.

→ Administrazio-prozedurei lotuta dauden *Eremu Orokorreko* ekintzen jarraipen handiagoa egitea eta foru-politika sektorialetan eta emakumeen eta gizonen berdintasunean duten eragina aztertzea.

7.2.5.- Foru Arauaren xedapen gehigarriak

→ Foru Arauaren *Jarraipen eta Ebaluazio Batzordea* sortzea (horretarako, Foru Arauak sei hilabeteko epea ezartzen du, onartzen denetik aurrera zenbatzen hasita) eta batzorde horrek Foru Arauaren urteko jarraipen-txostena egitea.

→ Premiei buruzko txostena balidatu eta izapidetzea, hala badagokio lanpostuen zerrenda aldatzea eta, hala badagokio, *Berdintasunerako Organoan* beharrezkoak diren plaza berrien hornidura egitea (horretarako, Foru Arauak hiru urteko epea ezartzen du, onartzen denetik aurrera zenbatzen hasita).

--

Donostia, 2019